

4.

Jarraipen Txostena

I. Euskadi Basque Country 2030 Agenda

2020. urtea



Agenda Euskadi
Basque Country

20
30



AURKIBIDEA



Jarraipen Txostena I. Euskadi Basque Country 2030 Agenda 2020. urtea

Agenda Euskadi Basque Country



2030

Euskadik Nazio Batuen 2030 Agendaren mundu-mailako erronka hartu du bere gain, Euskadi Basque Country 2030 I. Agendaren bidez. Agenda gure lurralderako ekintza-plan bat da, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren arloko hazkunde eta ongizaterako EAEko eredu izango dena, eta pertsona guztiei oinarrizko zerbitzuak eta kalitate handiagoko enplegu-aukerak sortuko dituen hazkunde jasangarria bermatzea xede duena.

Euskadi Basque Country 2030 I. Agenda 2017-2020 aldirako da, EAEko XI. legealdiko Gobernu Programaren indarraldirako, alegia, eta agenda horrek eta berau garatzen duten sektoreko politikek Garapen Jasangarriaren 17 Helburuekin (GJH) lotutako helburu eta helmugekin zer mailatan bat etortzen diren eta zer nolako ekarpena egiten dioten islatzen du. Horrela, 2030 Agendaren espiritua geure egiten dugu, kontuan hartuta Garapen Jasangarriaren Helburuak ez direla sortzen zer egin behar dugun esateko, baizik eta testuinguru unibertsal komun bat definitzeko, lehentasunak finkatzen lagunduko diguna, gure lurraldearen egoera aintzat hartuta.

Dokumentu honen xedea ez da dokumentuan zehatz-mehatz dena adieraztea, sailen bidez Gobernuaren jardunarekin egindako ekimenen laburpena egitea baizik, eta COVID-19aren salbuespenezko egoerari erantzuna emateko jarduera nagusiak jasotzen ditu. Halaber, helmuga bakoitzarekin lotutako ekimenak aukeratu dira, egikaritze-laburpen gisa.

2020ko edizioak ekitaldian aktibo izandako plangintza-tresnak jasotzen ditu; 2020rako lege-ekimenak gutxiago dira aurreko jarraipen-txostenekoen aldean, otsailean hauteskunde-deialdiaren ondorioz Eusko Legebiltzarra desegiteagatik jarduerarik ez delako egon.

JARRAIPIEN TXOSTENA I. EUSKADI BASQUE COUNTRY 2030 AGENDA



HERRIALDE-HELBURU



GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURU




EGINDAKO URTEKO ESKU-HARTZE NABARMENENAK

URTEA	EKINTZA ESANGURATSUAK	KONPROMISOAK	PLANGINTZA-TRESNAK	EKIMEN LEGEGILEAK	ADIERAZLEAK
2017	100	93	56	5	50
2018	100	93	66	16	50
2019	100	93	76	17	50
2020	147	93	89	6	50*

* Adierazleak biltzeko datari dagokionez, datak askotarikoak dira, eta adierazle bakoitzaren eta estatistika-organismoek jarraitzen dituzten elaborazio-prozesuen betebeharrak teknikoak erantzuten diete.

Jarraian, garapen jasangarriaren helburu bakoitzean 2020an egindako esku-hartze nabarmenenen **BETEARRAZPEN-LABURPENA** agertzen da.

Jarraipen-txostena deskargatu daiteke hemen:
www.euskadi.eus/agenda-2030/jarraipena-2020



Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan

Agenda Euskadi
Basque Country



20
30

2020 URTEAN
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

6

JARDUERAK

12

PLANGINTZA-
TRESNAK

3

PLANGINTZA-
TRESNAK

2

EKIMEN
LEGEGILEAK

1

EKIMEN
LEGEGILEAK

-

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Pobrezia ekonomikoaren adierazlea (Arope)

(2019) % 10,0

• Pobrezia materialaren adierazlea (Arope)

(2019) % 3,5

• Lan-intentsitate baxuko familia-unitateak (Arope)

(2019) % 10,3

1. Helmuga. Pobrezia-egoerei erantzutea eta gizarte-laguntzen eraginkortasuna hobetzea, gizarteratzearen alde eginez eta gizarte-bazterketako egoeren kronifikazioa eragotziz.

2. Helmuga. Gizarte-laguntzen erabilera egokia bermatzea, gehien behar dituzten pertsonen eskura iritsi daitezen, instituzioen arteko lankidetzeta eta datuen interkonexioa bultzatuz.

126

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta finkatu.

1. Jarduera. Gobernuak «bonu jasangarrien» bi jaulkipen egin zituen: bata, 500.000.000 €-koa (% 81 gizarte-politikak eta % 19 ingurumen-politikak), eta bestea, 600.000.000 €-koa (% 86 gizarte-politikak eta % 14 ingurumen-politikak).

2. Jarduera. 2020an funts berri bat sortu da, 10 milioi eurokoa, COVID-19aren pandemiak eraginda haur-pobreziako egoeran eta bazterketa-arriskuan edo -egoeran dauden pertsonak artatzeko.

3. Jarduera. Pandemiaren ondorioz jarduera utzi behar izan duten autonomoentzako laguntzen partida 16 milioi eurora arte handitzea onartu da.

4. Jarduera. 4.900.000 €-ko laguntza-programa bat ezarri da baliabide eskaseko familien oinarrizko beharrianak estaltzeko. DSBE, EPO eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzen areagotzea osatu du. Halaber, beste laguntza eta prestazio batzuk ere indartu dira.

5. Jarduera. COVID-19aren pandemian, enplegu-zentro berezietan edo laneratzeko enpresetan lan egiten duten eta desgaitasuna duten edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonen soldatak bermatu dira, eta desgaitasuna duten edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonekin lan egiten duten eta aldi baterako enplegu-erregulazioek eragin dieten enplegu babestuaren arloko langileen sorospenak osatzen ditu.

6. Jarduera. 2020an, baliabide ekonomikoak esleitu dira (50.450.000 €) desgaitasuna duten pertsonen lanpostuei enplegu-zentro berezietan eusteko laguntzak finantzatzera; horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin lotutako programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen dira.

130

Gizarte-larrialdiko Laguntzak bermatu.

3. Helmuga. Gizarte-larrialdietarako Laguntzak bermatzea, pobrezia energetikoa barne sartuta.

131

Pobrezia energetikoari aurre egin

7. Jarduera. Ohiz kanpoko partida baten bidez, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) programaren kreditua handitu da 2020an, «COVID-19ak eragindako krisiaren aurkako neurriak», 27,5 milioi eurotik 43,5 milioi eurora. (16.000.000 €).

4. Helmuga. Etxerik gabeko pertsoneri arreta eskaintzea.

132

Etxegabeak artatu.

8. Jarduera. Bazterketaren aurkako [Lehen Urratsak programa](#) sustatu da, etxegabeei aterpeetatik beste ostatu-aukera batzuetara igarotzen laguntzeko, gizarteratzeko laguntza eta ibilbideekin.

5. Helmuga. Adostasun zabaleko gizarte-itun bat sustatzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren finantziazioa sendotzeko eta haren iraupena bermatzeko.

129

Gizarte-zerbitzuen sistema finkatu eta indartu.

9. Jarduera. Lurralde historikoen artean gizarte-zerbitzuen 14.008.000 euroko funts bat banatzea onartu da.

6. Helmuga. Enplegarritasun zaileko pertsonen zuzendutako arreta optimizatzea, gizarte-zerbitzuen eta euskal enplegu-zerbitzuaren arteko koordinazio eta lankidetzaren bitartez.

133

Gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen arteko koordinazioa bultzatu.

10. Jarduera. Ohiz kanpoko laguntzak (15.500.000 €), [aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente](#) (ABEEE) batean dauden soldata baxueneko langileen prestazioa osatzeko.

11. Jarduera. 6.000.000 euroko ohiz kanpoko laguntzak, COVID-19aren ondoriozko alarma-egoeratik jarduera eten edo murriztu behar izan duten [laneratze-enpresa eta enplegu-zentro berezietarako](#).

12. Jarduera. Ohiz kanpoko laguntzen [partida handitzea](#) COVID-19aren ondorioz jarduera eten behar izan duten norbere konturako langileentzat edo autonomoentzat; 13.000.000 euro gehitu zaizkie hasierako 3.000.000 euroei.

Plangintza-tresnak

Gizarteratze Plana 2017-2021: Gizarteratzea sustatzen duten eta bazterketa eta/edo babesgabetasuneko arrisku-faktoreen intzidentzia prebenitzen duten EAEko politikak egituratzeko tresna.

Etixerik Gabeko Pertsonen Euskal Estrategia 2017-2020: Etixerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia garatzeko erakundearteko akordioa: Helburua da EAEko udalerrri handietan kalean lo egiten duten pertsonen kopurua nabarmen murriztea –% 20 gutxienez–. Estrategiak zazpi helburu orokor ditu eta 50 gidalerro zehatz proposatzen ditu, lehentasunezko bederatzia ardatzetan multzokatuta.



Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea

Agenda Euskadi
Basque Country **2030**

2020 URTEAN
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK **5**

JARDUERAK **3**

PLANGINTZA-TRESNAK **6**

PLANGINTZA-TRESNAK **7**

EKIMEN LEGEGILEAK **1**

EKIMEN LEGEGILEAK **-**

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Bizi-itxaropena jaiotzean

(2018) 83,6 urte

• Obesitate-tasa

(2018) % 12,8

• Nekazaritza ekologikoko eremuak

(2019) 5.661 ha

7. Helmuga. Nekazaritza-sektorearen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzea.

8. Helmuga. Azpiegitura eta zerbitzu egokiak ematea landa-eremuei eta kostaldeari, haien bizi-baldintzak hiri-eremuetako baldintzekin parekatzeko eta horko biztanleria mantendu ahal izateko.

9. Helmuga. Lehen sektorea gazteagotzea, etorkizuneko berme gisa.

10. Helmuga. Berrikuntza eta ikerkuntza sustatzea, nekazaritza-sektorearen lehiakortasuna hobetzeko.

11. Helmuga. Nekazaritza ekologikoa eta haren transformazio-industria sustatzea.

26

Euskadiko lehen sektorea garatu.

27

Nekazaritzako elika gaiak eta jarduerak sustatu.

13. Jarduera. Nekazaritza-ekoizpeneko teknika jasangarriekin laborantza estentsiboak dibertsifikatzeko laguntzen programa bat deitu da 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programaren barnean.

14. Jarduera. Ardogintzako eraldaketa-instalazioetan eta azpiegituretan inbertsioak egiteko laguntzak deitu dira, baita merkaturatzeko egitura eta tresnetarako, energia aurrezteko, energia-efizientzia orokorrerako eta prozesu jasangarrietarako ere (hamar milioi euro).

15. Jarduera. Nekazaritzako teknologia berriak garatzen eta abian jartzen ari dira zentro teknologikoen eskutik, modu jasangarrian egindako elikagaien ekoizpena handitzeko.

Plangintza-tresnak

Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa 2017-2020: Plana garatzea eta sendotzea, berrikuntza izan dadin landa-garapenarekin lotutako EAEko elikagaigintzaren buru.

Euskadiko Elikaduraren Balio Kateko Ekintzailtza Estrategia eta Food BIND 4.0:

Euskadiko Elikaduraren Balio Kateko Ekintzailtza Estrategia, ikasle eta gazteentzat, elikadura-enpresetarako, chefentzat eta agente inbertitzaileentzat, baita start-upetarako ere.

Gazte nekazarientzako Gaztenek Plana 2020: Gazte nekazariak EAEko nekazaritza-sektorean sartzeko eta mantentzeko plana.

Elikagaien Seguratasunaren arloko Ikerketa Koordinatzeko Plana: Elikagaien Seguratasunaren arloko I+B proiektuek EAEko nekazaritzako elikagaien katean sartu eta gizakiei eta animaliei osasun-arazoak sortu diezazkieketen arriskuak detektatzen eta murrizten laguntzeko plana.

Nekazaritza Ekologikoaren Plana: Euskadiko Nekazaritza Ekologikoaren Sustapenerako Plan berria 2020-2023.

Sasoikako Lanaren Arretarako Plan Integrala: IV. Plan Integrala, sasoikako lanaren inguruan sortutako beharrezanean erantzungo dieten ekimenak era koherente eta koordinatu batean planifikatzeko.

Landa Garapenerako OSOA Programa: Landa-garapenerako programa, Euskadirako ikuspegi integrala duena, Euskadiko erakunde, lurralde eta sektoreko ordezkariak osatua.



Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea

Agenda Euskadi
Basque Country **2030**

2020 URTEAN
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK **10**

JARDUERAK **23**

PLANGINTZA-TRESNAK **11**

PLANGINTZA-TRESNAK **11**

EKIMEN LEGEGILEAK **1**

EKIMEN LEGEGILEAK **-**

ADIERAZLEAK	DATUAK
• Bizi-itxaropena jaiotzean	(2018) 83,6 urte
• Gastu publiko sanitarioa per capita	(2018) % 12,8
• Minbiziaren (bularrekoa, kolonekoa) biztanleriaren baheketak hartzen duen biztanleriaren ehunekoa	Bularreko minbizia: (2018) % 77,2 Kolon-ondesteetako minbizia: (2019) % 71,2

12. Helmuga. Osasun sistemaren estaldura unibertsala eta irisgarritasuna bermatzea.

64

Osasun-sistemaren estaldura unibertsala eta irisgarritasuna bermatu.

16. Jarduera. Egoera larri edo lehentasunezkoan dauden pazienteen arreta bermatu da eta neurriak hartu dira infekzioa emaleetatik hartzaileetara transmititzea eragozteko; ohiko emaitza eta transplante erritmoa berreskuratu da Euskadin COVID-19aren pandemiak eragindako salbuespenezko egoeraren ostean.

13. Helmuga. Pertsonen erantzunkidetasuna osasunaren zaintzan sustatzea.

66

Osasunaren zaintzan pertsonen erantzunkidetasuna sustatu.

17. Jarduera. Osasun Batzorde bat sortu da Euskal Autonomia Erkidegoan ijito herriaren gizarteratzea eta parte-hartze soziala sustatzeko kontseiluaren barruan, eta ijitoen elkarteek, Osakidetzako langileek eta Osasun Sailak parte hartu dute.

14. Helmuga. Ekitatea osasun-arretan bermatzea, garrantzi berezia emanez genero-ikuspegiari, kolektibo kalteberenei eta arretaren kalitateari.

67

Ekitatea babestea osasun arretan, arreta berezia jarritz genero-ikuspegi eta giza talde ahulenetan.

18. Jarduera. Emakumeen genitalen mutilazioarekin zero tolerantzia izatearen esparruan, prebentzio-neurriak hartu dira Euskadin emakumeen genitalen mutilaziorik ez egiteko. Gainera, C hepatitisaren baheketa zabaldu da, arrisku-biztanleriaren baheketa eta baheketa oportunistak aintzat hartuta. Gainera, lanean jarraitu da suizidio-arriskuaren detekzio goiztiarrean, «prebentzioaren, esku-hartze goiztiarrean eta pertsona eta familia ukituentzako arretaren bidez, suizidioaren eragina murrizteko estrategia integralaren» bitartez.

15. Helmuga. Osasuna ingurune komunitarioan bultzatzea, jarduera fiskoa eta elikadura osasungarria sustatuz.

69

Osasuna sustatu ingurune komunitarioan.

19. Jarduera. Tresna berri bat ezarri da haurren gainpisuari eta obesitateari aurre egiteko. Tratamenduak teknologia berriak eta Pediatrian protokolatutako aurrez aurreko kontsultak uztartzen ditu. Tratamendu honek Serious Games metodologia erabiltzen du tresna gisa, eta helburu du haurrak eta familiak ahalduz paziente aditu bihurtzeko, eta horretarako, besteak beste, nutrizio, elikadura, jarduera fisiko, autoestimua, aisialdi aktibo edo etiketak irakurtzeko buruzko ebidentzia zientifiko handiko ezaugarriak ematen zaizkie. Jolasa pazientearen historia digitalean txertatuta egongo da; horri esker, osasun-profesionalak hurrengo maila aktibatu eta haren bilakaera monitorizatu ahal izango du.

20. Jarduera. ACWY meningokokoaren aurka txertatzeko ezohiko kanpaina, 2001-2007 artean jaiotako gazteentzat, aurretiaz C meningokokoaren aurkako txertoa jaso dutenentzat; orain, serotipo gehiago (AWY) dituen txerto osagarria jasoko dute.

16. Helmuga. Osasun Publikoa bultzatzea, instituzioen arteko koordinazio eta lankidetzarako formulak ezarriz, eta koordinazio soziosanitarioa sustatzea.

70

Osasun Publikoa sustatu, eta zaintza-sistema integral bat abian jarri.

76

Koordinazio soziosanitarioa bultzatu.

21. Jarduera. Material sanitarioaren erosketak, biltegiak eta horretarako arlo logistikoa bermatu da, COVID-19aren aurkako borrokan lehen leerroan diharduten EAEko Administrazio Orokor, foru-aldundi, udal eta udalaz gaindiko toki-erakundeetako organoak behar dituzten produktuekin hornitzeko, hala nola, bata, eskularru edo maskarekin, pandemiaren balizko agerraldiei aurre egiteko.

22. Jarduera. Plasma baliatzen duen terapia ikertzeko proiektua garatzen aurrera egin da, koronabirusa duten pazienteen tratamendu gisa erabiltzeko. Helburua da gaixotasuna gainditu duen emaille baten plasma-infusioak koronabirusa duen paziente baten tratamenduan izan dezakeen efikazia ezagutzea. 26 transfusio egin dira lehenengo fasean. Orain, estrategia terapeutiko berria berregiten ari dira, estatuko lehena; horri esker, Lehen Mailako Arretarekin lankidetzan, tratamendua emateko unea aurreratuko zaie arrisku handieneko pazienteei.

23. Jarduera. COVID-19aren infekzioen detekzio goiztiarrerako neurriak ezarri dira. Milioi bat biztanleko egindako testen batezbestekoak, 6.430, Euskadi Italia eta Alemaniaren egoera berean kokatzen du, eta Herbehereak, Erresuma Batua edo Frantzia baino gorago.

24. Jarduera. Zaintza Intentsiboetako Unitateetarako (ZIU) Kontingentzia Plana jarri da abian. Horri esker, bikoiztu egin daiteke ZIUko oheen kopurua COVID-19a duten pazienteentzat.

25. Jarduera. 200.000.000 euroko funts bat onartu da sendagaiak ekoitzi eta hornitzeko, eta osasun-materiala erosteko; prebentzio-arreta eta telefono bidezko aholkularitza indartzeko; ospitale-zentroetan eta etxeko asistentzian osasungintzako errefortzuentzako; eta ospitale-espazioak berrantolatu, eta kutsatuak artatzeko espazio berriak gaitzeko.

26. Jarduera. Sintoma arinak dituzten COVID-19aren paziente arrunt edo positiboak hotel eta sare pribatuko ospitale-zentroetara bideratu dira; Osakidetzako langileei laguntza emozionala emateko zerbitzua gertatu da pandemiako egoera asistentzialak eragindako estresari aurre egin ahal izateko; adinekoei etxera botikak entregatzeko zerbitzu bat jarri da martxan; osasungintzako gradudun berriak kontratatu dira Osakidetzaren langile taldea sendotzeko; botikak ospitaletan hartzen dituzten pertsonentzako botikak banatzeko prozedura bat ezarri da, baita arriskuan dauden edo zaurgarriak diren pertsonei botikak etxean entregatzeko sistema bat ere, besteak beste.

27. Jarduera. ZIUko oheak eskaini zaizkie muturreko egoeran dauden probintzia mugakideei.

28. Jarduera. Zuzendaritza Batzorde bat sortu da Euskal Autonomia Erkidegoko baliabide sanitarioak, kudeaketa-arlokoak eta boluntarioak koordinatzeko, koronabirusak (COVID-19) eragindako krisiari aurre egiteko.

17. Helmuğa. Zainketa aringarrien arreta bultzatzea, eta baita gaixotasun kroniko, buru-gaixotasun eta gaixotasun arraroei zuzendutako arreta espezifikoak ere.

80

Zainketa aringarria bultzatu. Zainketa-aringarrien Plana zabaldu.

81

Gaixotasun kronikoei, gaixotasun mentalei eta gaixotasun arraroei berariazko arreta eman.

29. Jarduera. Gaixotasun arraroen erregistroak EAEn bizi direnen artean diagnostikatutako gaixotasun arraroei (5 kasu baino gutxiago 10.000 biztanleko EBn) buruzko informazioa jaso eta landu du. Abian jarri zenetik, 2015etik, alegia, [722 patologiari dagozkien 6.000 kasu inguru identifikatu dira](#).

18. Helmuğa. HIESa eta bestelako gaixotasun infekziosoak prebenitzea.

73

HIESaren eta beste gaixotasun infekzioso batzuen prebentzioa.

30. Jarduera. Jarduerak Euskadin garatzen dituzten eta GIB/hiesa, C hepatitis (HC) eta sexu-transmisioko infekzioak prebenitzeko eta kontrolatzeko lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeetarako laguntzak.

19. Helmuga. Adikzioak prebenitzea eta tratatzea, gazteei zuzendutako ekimenak indartuz.

72

Arreta berezia eman menpekotasun-arazoak dituzten pertsoneri

31. Jarduera. Toki-erakundeei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei 2.854.000 € laguntzatan esleitzeko prozedura jarri da abian, komunitate-prebentzioko programak gara ditzaten, mendekotasunen arloko arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak egin ditzaten eta jokabide osasuntsuak susta ditzaten. Halaber, mendekotasunen alorreko tokiko erakundeetako komunitate-prebentzioko teknikari taldeak mantentzera xedatuko dira laguntzok.

32. Jarduera. Aurrez aurrekoak ez diren bi laguntza-tresna berri jarri dira martxan erretzeari utzi nahi diotenentzat: terapia-programa, tratamendu eta jarraipen pertsonalarekin eta mugikorrerako aplikazio batekin uztartuta, eta taldeko esku-hartzea online. Tresna berri horiei esker, indartu egingo dira dagoeneko eskaintzen diren tratamenduak, eta Lehen Mailako Arretako osasun-zentroen bidez jarriko dira abian.

20. Helmuga. Osasun- eta kirurgia-arreta eskaintza herrialde pobreetatik edo gerran dauden herrialdeetatik datozen adingabeei, baita aldi baterako harrera-egoeran dauden adingabeei ere.

64

Osasun-sistemaren estaldura unibertsala eta irisgarritasuna bermatu.

33. Jarduera. Peruko Osasun Ministerioari lagundu zaio uztailean eta abuztuan COVID-19aren aurkako kudeaketan. Zeregin horretan osasuneko eta Osakidetzako 15 profesionalak parte hartu zuten, eta Mugarik Gabeko Medikuen laguntza ere jaso zen.

21. Helmuga. Osasunaren alorreko ikerkuntza eta berrikuntza sustatzea.

89

Osasun-arloko ikerkuntza eta berrikuntza handitzea. Jakintzaren kudeaketa sustatu bai eta osasun-arloko ikerketan parte hartzen duten eragileekiko lankidetzaren ere.

34. Jarduera. UPV/EHuren bitartez, lankidetzaren bidez ezarri dira Euskadin koronabirusari ikerketa baliatuz aurre egiteko; ikerketa-zentroak eta unibertsitateak gaitu dira, COVID-19aren lagin klinikoen PCRak aztertze laguntza-laborategi gisa.

35. Jarduera. Koronabirusari aurre egiteko 60 proiektu edo entsegu klinikotan baino gehiagotan parte hartu da. (2020/04/09).

36. Jarduera. Nazioarteko ikerketa batean parte hartu da, Biodonostia Institutuko, Osakidetzaren Euskal Osasun Zerbitzuko, Ikerbasqueko eta Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaileen bitartez, SARS-COV-2 infekzioa duten pazienteetan arnas-akatsak izateko arriskuan eragiten duten ezaugarri genetikoak identifikatzeko.

37. Jarduera. 2020ko deialdi bat onartu da, osasunaren arloko ikerketa- eta garapen-proiektuei laguntzak emateko (4.310.500 €).

38. Jarduera. Euskal Osasun Sistemak, Kronikagune Osasun Zerbitzuetako Ikerketa Institutuaren bitartez, Europako 11 erakundek osatutako partzuergoa koordinatu du ADLIFE proiektua garatzeko. Egitasmo hori proiektu pilotuekin zabalduko da zazpi herrialdetan. 75 ospitale, klinika eta lehen mailako arretako zerbitzuetako 600 profesionalak parte hartuko dute, baita 800 pazientek baino gehiagok eta 1.200 zaintzailek baino gehiagok ere. Ia 5 milioi euro inguruko aurrekontua du guztira, eta helburu du arreta integratua, koordinatua, aurreratua eta pertsonalizatua ematea gaixotasun kroniko aurreratuak dituzten adinekoei haien osasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko.

Plangintza-tresnak

Osasun Plana: Euskadiko Osasun Sistema ekitatiboagoa izateko eta ekitate-ikuspegia sistematikoki sartzeko gobernuaren eta politika publiko guztietako plan eta esku-hartze guztietan.

Elikadura Osasungarrirako Estrategia: Osasun, Hezkuntza eta Nekazaritza Sailek sustatua, jaten dugunaren bitartez osasuna sustatzeko eta gaixotasun kronikoen gorakada murrizteko, hala nola kardiobaskularrak, diabetesa eta minbizi mota batzuk.

«Adingabeak eta alkohola» programa: Holistikoki aurre egitea, kontuan izanda alkoholaren gehiegizko kontsumoak zenbait adin-tarte eta gizarte-taldetan adin-tarte eta gizarte-talde guztien partaidetza eta erantzukizuna behar duela. Biztanle gazteen alkohol-kontsumoa prebenitzea biztanle guztien erantzukizun gisa proposatzen da, gazteengan eta ikasleengan arreta jarrita, baina baita gurasoengan, ostalaritzako profesionalengan, irakasleengan, osasuneko profesionalengan eta gainerako gizarte-eragileengan ere.

Haurren Hortzak Zaintzeko Programa: Odontologoa aukeratzeko prozedura sinplifikatzea, efizientzia handiagoa lortzeko prestazioa izapidetzean eta haur gehiago atxikitzekeo programara. Euskadiko Aho eta Hortzetako IV. Ikerketa Epidemiologikoak egiaztatu du EAEko eskola-haurren aho-hortzetako osasuna estatukoa baino hobea dela eta EBko sailkapenaren buruan dagoela azken hamarkadan, Danimarkarekin batera, besteak beste.

Ildo Estrategiko Soziosanitarioak 2017-2020: Euskadin suizidioa prebenitzeko estrategiaren buru izango den koordinazio- eta jarraipen-batzordea ezarri da.

Plan Onkologiko Integrala: Azaroan, haur eta nerabeen minbiziaren koordinazio asistentzialerako batzorde autonomikoa eratu zen, entsegu kliniko berdinetan parte hartu, eta, beraz, tratamendu berdinak jasotzea bermatzeko.

Euskadiko Zainketa Aringarrien Plana 2020: Kalitatezko arreta homogenea eskaintzeko pazienteari eta bere familiari etxean, egoitzan eta ospitalean.

Osasun-arloko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategia 2020: Sistema sanitarioak praktikan bere eginkizuna bete dezan, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan biozientzien esparruaren garapenerako funtsezko oinarri izatea. Hain zuzen ere, gure ongizatearen gizartearen zutabeetako bat den aldetik, esan daiteke zeregin horren alderdi osagarri bat dela.

Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Segururako eta Jasangarrirako Plana 2015-2020: 2020an trafiko-istripuetan hildako pertsonen kopurua % 50 murrizteko, 2010ekoen aldean.

Adikzioen EAEko Plana: Euskadin adikzioen arloan garatzen diren estrategia eta esku-hartzeak antolatzeko eta koordinatzeko (zehazki, prebentzioari, eskaintza murrizteari, asistentziari eta kaltetuen gizarteratzeari dagokienez), eta osasuna sustatzeko. Adikzioen inguruko jarduerak zeharka txertatzea da xedea, osasunaz gainera, hainbat esparruk dutelako zer esana: hezkuntzak, kulturak, gazteriak eta kirolak, gizarteratzeak, Batasuneko politikak, laneko osasunak, etxebizitzak, ingurumenak, segurtasunak, justizia-administrazioak, espetxe-instituzioek, publizitateak eta komunikabideek.

Haurren Obesitatea Prebenitzeko Estrategia: plan praktikoa gisa osatu da, ekintzara bideratuta, Euskadiko haur eta gazteek modu integralean, 0 eta 18 urte bitartean, jarduera fisikoa praktikatu eta elikadura osasuntsua izateari loturiko helburu jakin batzuk lortzeko.



Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea

Agenda Euskadi
Basque Country **2030**

2020 URTEAN
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK **7**

JARDUERAK **23**

PLANGINTZA-TRESNAK **7**

PLANGINTZA-TRESNAK **12**

EKIMEN LEGEGILEAK **7**

EKIMEN LEGEGILEAK **1**

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Bizi-itxaropena jaiotzean

(2018) 83,6 urte

• Obesitate-tasa

(2018) % 12,8

• Nekazaritza ekologikoko eremuak

(2019) 5.661 ha

22. Helmuga. Bikaintasunerantz aurrera egiten duen eta hezkuntzarako sarbidearen berdintasuna bermatzen duen kalitatezko eskola inklusibo, bidezko eta berritzailea sustatzea.

91

Eskola inklusiboaren, ekitatiboaren eta berritzailearen alde egin, bikaintasunerantz aurrera egiteko.

39. Jarduera. [Eskola inklusiboa garatzeko Esparru Plana \(2019-2022\)](#) ezartzen aurrera egin da.

40. Jarduera. [Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko planean \(2019-2022\)](#) aurreikusitako jarduerak garatu dira.

41. Jarduera. [Bikaintasunerantz deialdia 2020](#), (hezkuntza-bikaintasuna): Curriculuma aberasteko proiektuak bultzatu dira, ikasgelan metodologia aktiboak ezartzeko eta ikasle guztiei, gaitasun handiak, jarrera bikainak edo talentu bereziak izan edo ez, arreta eta onura ematera bideratutako hautemate-programak garatzeko, ikastera eta lorpen pertsonal nahiz kolektiboetara motibatuzko.

42. Jarduera. [Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren III. Jardunaldiak](#) antolatu dira, tokikoa eta globala antolatzeko ekintza pedagogiko eraldatzaileetan aurrera egiteko.

43. Jarduera. Lanbide Prestakuntza Solidariorako plataforma bat jarri da abian, inklusio, ekitate eta berdintasunaren aldeko proiektu solidarioak egiteko.

23. Helmuga. Oreka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun eta bizikidetzaren maila handiagoak lortzea gure ikastetxeetan.

92

Oreka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun eta bizikidetzaren maila handiagoa lortu gure ikastetxeetan.

44. Jarduera. Dibertsitatearen arretarako, kulturartekotasunaren sustapenerako, hezkuntza-errefortzu espezifikorako, ikaskuntzaren hobekuntzarako, curriculum-dibertsifikaziorako eta eskolatzeko osagarriarako [programa espezifikoak](#) deitu dira (Hamaika Esku Programa).

45. Jarduera. «EAEko hezkuntza-sistamarako hezkidetzaren II. Plana, berdintasunaren eta tratu onerako bidean» (2019-2023) egitasmoan ezarritako jarduerak egin dira.

46. Jarduera. Zentroetan, BIZIKASI, bizikidetzaren positiborako eta jazarpen-egoeren aurrean zero tolerantzia izateko ekimena ezartzen jarraitu da.

24. Helmuga. Eleaniztasuna eskolan bultzatzea.

93

Eleaniztasuna bultzatu eskolan.

47. Jarduera. Bertako eta atzerriko hizkuntzen tratamendu integraturako proiektuak deitu dira ([Eleaniztasunerantz 2020 deialdia](#)).

48. Jarduera. Ikasle iritsi berrien [hizkuntza-murgilketarako programak hobetzeko](#) deialdia.

25. Helmuga. Hezkuntza-azpiegiturak eraikitzea eta egokitzea.

96

Hezkuntza-azpiegiturak sortu, berri eta egokitu.

49. Jarduera. [Hezkuntza Azpiegituren Plana 2019-2023](#) garatu da. Azpiegiturak berriak sortu, eta egungoen mantentze-lanak egin dira, patio eta sukaldeak estali eta inklusibo bihurtu dira, eta hezkuntza-azpiegituren irisgarritasuna hobetu da.

50. Jarduera. Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) eta Hezkuntza Sailaren arteko lankidetzaren sustatzea, eraikinetako instalazioen jasagarritasun energetikoa sustatzeko.

51. Jarduera. 15 espazio-egokitzapen egin dira LH arloan, errendimendu handiko gelak (ETHAZI gelak) sortzeko. 1.500.000 euroko aurrekontua izan da.

26. Helmuga. Modernizazio teknologikoa irakaskuntzan bultzatzea.

97

Irakaskuntzaren modernizazio teknologikoa bultzatu.

52. Jarduera. «Hezkuntza Sistemako Digitalizazio Jasangarriaren eta Sistema Adimentsuen Plan Integrala» eta «Euskal Lanbide Heziketako Trantsizio Berderako, pertsonen gaikuntzarako eta ETE-en lehiakortasun jasangarria babesteko plana» zehazteko aurretiko zereginak egin dira.

53. Jarduera. [Sare-Hezkuntza Gelan](#) deialdia: Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoei deialdia egin zaie baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko berrikuntza-proiektuan parte har dezaten.

54. Jarduera. [IKTen alorreko heldutasun-eredua](#): hezkuntza-zentroen IKTen alorreko profila egiaztatzeko prozesuen deialdiak egin dira.

55. Jarduera. Pandemia garaian digitalizazioan eta tresna teknologikoetan trebatzeko 24 ikastaro egin dira; LHko 2.079 irakaslek parte hartu dute.

56. Jarduera. Digitalizazio handiko 15 espazio egokitu dira LHko errendimendu handiko zikloetan prestakuntza jasotzeko.

57. Jarduera. Lanbide Heziketan aplikatutako teknologia eta ikerketan diharduten lankidetzak sareak ezarri dira.

27. Helmuga. Bizikidetzaren eta giza eskubideen alorreko hezkuntza sustatzea (indarkeriarik eza, dibertsitatea eta elkartasuna).

166

Bake- eta bizikidetzakultura, giza eskubideen eta pluralismoaren errespetuan oinarrituta.

58. Jarduera. 250.000 euroko [laguntzen](#) deialdia egin da udalerrri eta gainerako toki-erakundeetarako, eta 900.000 euroko laguntzena irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuetarako, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak egin ditzaten.

59. Jarduera. LH Solidarioaren plataforma bat jarri da abian. 100 proiektu solidariorik gora egin ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, eta nazioartean ere beste proiektu batzuk egin ditu beste herrialde batzuekin.

60. Jarduera. «II. Hezkidetzak Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023)» egitasmoaren barruan, Bizikasi ekimena ezartzen jarraitu da, Euskadiko zentro publiko guztietan bizikidetzak positiboa izateko eta eskola-jazarpenerako kasuak prebenitu eta kudeatzeko.

28. Helmuga. Enpresen beharrei eta pertsonen enplegarritasunei erantzuten dien bikaintasuneko lanbide-heziketa finkatzea, laugarren iraultza industrialaren erronkak bereziki kontuan hartuta.

100

Lanbide Heziketako Euskal Campusa bultzatzea.

102

Euskarazko prestakuntza-zikloak ezartzen aurrera egin eta Lanbide Heziketan eleaniztasuna bultzatzen jarraitu.

61. Jarduera. Industria 4.0 eta Biozientziak arloan lankidetzak sareak ezarri dira, baita nazioarteko proiektu berriak ere, Euskadiko enpresa-beharrizanei erantzungo dieten irakasleak eta ikasleak trebatzeko. Horrez gain, ekintzailak sozial, emozional eta humanistara bideratutako ekintzak sustatu dira, enplegu berdea eta hazkunde ekonomiko jasangarria sortzeko. Halaber, ikerketa eta berrikuntza aplikatuko proiektuak identifikatu dira garapen jasangarrirako helburuak zabaltzeko, eta, horrela, egitasmo ekintzaileen sare bat sortzeko bai irakasleen kolektiboan bai ikasleenean, gizarte-inpaktu positiboa sortuko duten merkatu berriak garatzea oinarri hartuta.

Plangintza-tresnak

Hezkuntza Azpiegiturak Hobetzeko Plana 2019-2023: Aukera-berdintasuna sustatzeko eta bizikidetzaren demokratikoa, solidarioa eta erantzulea eraikitzeko.

Unibertsitate Plana (2019-2022): Goi-mailako hezkuntzaren, bikaintasun-ikerketaren eta ezagutza-transferentziaren bitartez EAEko gizartea garatzeko eta eraldatzeko erreferentzia-esparrua da.

HABIAN 2030 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategia: Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategia, herritar kritikoak eta planetako bidegabekeria eta desparekotasunen jakitun direnak sustatzeko, bai eta aldaketa indibidualak eta kolektiboak sortzen dituzten jardun ekitatibo eta solidarioak ere.

2019-2022ko eskola inklusiboaren eta kulturartekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko plana: Bizikidetzaren eta ekitaterako esparru komun bat zehazteko, aniztasunaren balioa indartuta, eta hezkuntza-erantzun eta -jardunak EAEko ikasle guztien ikaskuntza-beharrizan eta -potenzialera egokituta; eta, halaber, politika eta jarduerak inklusiboak sustatzeko, egiturazko jarduerak garatuz EAEko hezkuntza-sistema osoan.

Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Hezkuntza Programa Osagarria 2017-2020: Giza eskubideen arloko hezkuntza-proiektua finkatzeko, giza duintasunaren oinarri pedagogikoan oinarrituta.

LHko V. Euskal Plana 2019-2021: LHko ikasleen trebakuntza sustatzeko, laugarren industria-iraultzak (4.0 inguruneak, digitalizazioa eta konektibitatea, sistema adimendunak eta adimen artifiziala) eskaintzen dituen aukeretara eta eskatzen dituen beharrietara egokituz.

STEAM Euskadi Estrategia: Hezkuntza eta trebakuntza zientifiko-teknikoa sustatzeko hezkuntza-etapa guztietan.

EAEko hezkuntza-sistemako digitalizazio jasangarriaren eta sistema adimentsuen plan integrala. Euskadi Next 21-26 programa.

Euskal Lanbide Heziketako trantsizio berderako, pertsonen gaikuntzarako eta ETE-en lehiakortasun jasangarria babesteko plana. Euskadi Next 21-26 programa.

2030erako Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia: gida praktikoa eta kolaboratiboa izatea du xede, gure bizimoduak jasangarritasunaren kultura berri batera aldatzeko.

Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko plana: Gaitasun handiko ikasleekiko esku-hartzea sistematizatzeko eta hezkuntza-komunitatea ikasle horien errealitateari buruz trebatu eta sentsibilizatzeko.

EAEko Hezkuntza Sistemarako Hezkidetzaren II. Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023): Era koordinatu eta integrean sustatzeko hezkidetzako eskola-eredua, hezkuntza-zentroek beren kulturaren, politiketan eta jardunetan genero-ikuspegia txertatzea sustatzeko, eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, garaiz antzemateko eta horren aurrean erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzeko.

Ekimen Legegileak

EAEko gazteriaren lege-proiektua: EAEko administrazio publikoek gazteriaren arloan dituzten eskumenak eta atribuzioak arautzeko, gazteen emantzipazioa eta administrazio publikoan gazteen ikuspegia sustatzeko, bai eta gazteriaren arloko zeharkako politikak koordinatzeko, planifikatzeko eta ebaluatzeko ere.



Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neska guztiak ahalduntzea

Agenda Euskadi
Basque Country **2030**

2020 URTEAN
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK **4**

JARDUERAK **16**

PLANGINTZA-TRESNAK **3**

PLANGINTZA-TRESNAK **5**

EKIMEN LEGEGILEAK **1**

EKIMEN LEGEGILEAK **1**

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Genero-berdintasunaren indizea

(2017) 71,1

• Batez besteko soldata. (soldataren arloko genero-desberdintasuna)

Emakumeak: (2018) 24.757 €
Gizonezkoak: (2018) 31.970 €

• Hirugarren mailako ikasketak amaitu dituzten 30 eta 34 urte arteko gizon eta emakumeen ehunekoa. (prestakuntza-mailaren arloko genero-desberdintasuna)

Emakumeak: (2019) % 60,2
Gizonezkoak: (2019) % 57,8

29. Helmuğa. Balioen aldaketa sustatzea, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko.

145

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu, garapen jasangarria lortzeko funtsezko zutabea den aldetik.

62. Jarduera. Emakunderen bidez Garapenerako Nazio Batuen Programarekin (GNBP) eta beste erakunde batzuekin lankidetzan aritu gara, tokiko ekonomia-garapenean genero-ikuspegia txertatzeko, DELGEN ekimenaren bitartez.

63. Jarduera. Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzarekin lankidetzan aritu gara, berdintasunari eta generoari buruzko lantaldea martxan jartzeko, Europako Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziaren esparruan.

64. Jarduera. Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateentzako dirulaguntzen deialdiak egin dira, beharrezko den laguntza teknikoa izan dezaten emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnostikoak egiteko eta/edo berdintasunerako planak egin, ebaluatu eta egokitzeko.

30. Helmuğa. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lanaren eremuan bultzatzea, soldata-diskriminazioaren aurka borrokatuz eta bizitza pertsonala, familiako eta lanekoa uztartzearen alde eginez.

146

Lan-eremuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu.

65. Jarduera. Genero-ikuspegia kontratu publikoetan, dirulaguntza publikoetan, hitzarmenetan eta itun sozialetan txertatzeko gidaliburua argitaratu dugu. Horrela, kontratazio publikoan genero-ikuspegia zeharka txertatzeko beharizanari erantzun zaio, Sektore publikoko kontratuaren Legeak ezartzen duenari jarraikiz. Gidaliburuaren xedea da botereen eta administrazio publikoen zereginean genero-ikuspegia eraginkortasunez txertatzen laguntzea.

66. Jarduera. Gizonen eta emakumeen soldata-berdintasunerako klausulak eta soldata-arrakalaren aurkako neurriak ezarri dira EAEko kontratazio publikoan, Euskadin Soldata Arrakala Murrizteko Estrategia eta Plan Operatiboan ezarritakoa gauzatzuz.

31. Helmuğa. Gurasotasun positiboa eta erantzunkidetasuna sustatzea.

139

Familien eta haurren aldeko ituna.

67. Jarduera. Hezkuntza-errefortzuko proiektu bat jarri da martxan, haur babesgabeen tarako, eta «Inor atzean utzi gabe», bazterketa- eta pobrezia-egoerak artatzeko funtsean sartu da. COVID-19aren krisiak familia babesgabeenen etorkizuneko aukeretan izan dezakeen inpaktua murriztu nahi du, ikasgelaz kanpoko hezkuntza-errefortzu komunitarioaren bitartez. Aurrez gizarte-desabantailako egoeran zeuden adingabeentzat da, eta alarma-egoerak eta arrakala digitalak hezkuntza-prozesuarekin jarraitzeko zailtasunak dakarzkientzat.

68. Jarduera. [Familiako bizitza eta bizitza pertsonala kontziliatzeko](#) laguntzak onartu dira, baita finantzaketa-lerro berriak ere, batzuk berriaz sortuak alarma-egoerak EAEko etxeetan sortzen ari den zailtasunetarako eta berrogeialdietarako. Zenbatekoa: Hasierako zuzkidura 37.145.650 eurokoa da, eta 52.145.650 eurora handitu daiteke, aurkeztutako eskaeren arabera beharrezkoa bada; 15.000.000 euroko areagotzea, alegia.

69. Jarduera. Laneko eta familiako bizitza kontziliatzeko programaren aplikazio hedatua egin da, jardunaldia murrizteko laguntzak bideratuz kasu hauetan:

- Koronabirusak kutsatutako edo koronabirusagatik isolatutako adingabe eta pertsonak zaintzea.
- Hezkuntza-zentroak eta eguneko egoitzak ixteak eragindako adingabe eta adinekoak zaintzea.

32. Helmuga. Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzea eta genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako arreta judiziala hobetzea. NBEren Populazioren Funtzari laguntzea, Indarkeria pairatzen duten Emakume eta Neskentzako Funtsezko Zerbitzuen Programa Bateratuan parte hartzeko (UNFPA-NBE).

147

Emakumeen kontrako biolentzia desagerrarazi.

157

Genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako arreta judiziala hobetu.

70. Jarduera. «Ordainketa bakarrek» laguntza ekonomikoak eskuratzeko aukera malgutu zaie genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeei, eta laguntza hori telematikoki kudeatzeko aukera erraztu da, COVID-19aren krisi sanitarioak irauten duen bitartean.

71. Jarduera. Larrialdietako baliabideei eta zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatu da, EAEko erakundeek indarkeria matxista prebenitzeko eta biktimeak babesteko eskaintzen dituzten premiazko neurriak zorrotzeko. Osasun-larrialdia dela eta.

72. Jarduera. Sei hizkuntzatan zabaldu da indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko telefonoen informazioa, koronabirusak eragindako salbuespenezko egoeraren aurrean.

73. Jarduera. EAEko 185 udalerritan koronabirusaren krisian aktibo dauden indarkeriaren biktimei diren emakumeei arreta emateko zerbitzuei buruzko informazioa bildu eta herritarren esku jarri da.

74. Jarduera. EDEKA Elbarrituen Ordezkarien Euskal Koordinatzailearekin batera lan egin da, krisi honetan indarkeriaren biktimeentzako arreta-telefonoei buruzko informazioa helarazteko.

75. Jarduera. Foru-aldundiekin batera, arreta psikologiko espezializatuaren arloan 4.100 saiotik gora eman dira indarkeriaren biktimei diren emakumeekin konfinamenduan.

76. Jarduera. [2019-2021 aldirako Emakumearen Aurkako Indarkeriari buruzko Lan eta Justizia Sailaren jardun-plana](#) onartu eta aurkeztu da. Esku-hartzeko 6 arlo ditu, eta, guztira, 34 jarduera, erakundearteko koordinazioa sustatzeko, emakumearen gaineko indarkeriako epategietako langileak trebatzeko, instalazioak egokitzeko eta biktimei informazio-, arreta- eta laguntza-zerbitzuak indartzeko.

77. Jarduera. NBEren Biztanleria Funtzari (UNFPA) laguntzea, Indarkeria pairatzen duten Emakume eta Neskentzako Funtsezko Zerbitzuei buruzko baterako programan parte hartzeko (UNFPA eta NBE Emakumeak).

Plangintza-tresnak

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana (2018-2021): EAEko botere publikoen jarduera berdintasunaren arlora bideratzeko, erakundearen berdintasuna txeratzeko eta EAEko administrazio publikoen funtzionamenduan sartzeko. Emakumeen ahalduntzea du xede, emakumeen eta neskatuen ahalduntzea bultzatzeko maila guztietan: pertsonalean, kolektiboan, sozialean eta politikoan. / Ekonomiak eta gizarte-antolaketa eraldatzea, eskubideak bermatzeko eta gizarte-eredu jasangarriago bati ekarpena egiteko / Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak bermatzea, prebentzioa landuz eta bizirik irten diren biktimei arreta integrala emanez, erabat oneratzeko diren arte.

Familien eta haurren aldeko Euskal Ituna: Familia mota guztien eskubideak sustatzeko eta babesteko, eta haien ongizate-maila hobetzen laguntzeko. Helburu du familia barruan haurrak eta nerabeak babesten direla bermatzea; pertsonak, gazteak beren familia-proiektua hasi eta nahi duten seme-alaben kopurua izatea zailtzen duten oztopoak pixkanaka kentzen edo murrizten laguntzea; familiako eta laneko erantzukizunen kontziliazioa erraztea, baita emakumea lan-merkatuan sartzeko eta ibilbide profesionala garatzea ere; familian gizonen eta emakumeen erantzukidetasuna finkatzen laguntzea, bereziki zaintzan eta seme-alaba adingabeen hezkuntzan eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arretan; belaunaldien arteko eta belaunaldien barruko solidaritatea sustatzea; familiaren babes ekonomiko bermatzea eta gizarte-bazterketa prebenitzea zaugarritasun egoera berezietan dauden familietan.

Euskadin soldata-arrakala txikitzeke Estrategia eta Plan Operatiboa: Nazioartean garatutako estrategia eta plan nagusiekin bat etorrita, soldata-berdintasunerako eskubidearen eta emakumeen eta gizonen arteko soldata-bereizkeriarik ez izatearen arloan.

2018-2022 aldirako EAEko familiei laguntzeko erakunde arteko IV. Plana: Erakundearteko estrategia bat sustatzea aldaketa demografikoa eragiteko eta EAEko gizartea gaztetzeko; seme-alabak dituzten familien laguntzak % 50 handitzea; laneko eta zainketen eta etxebizitzaren arloko erantzukidetasun eta kontziliazioko laguntza ekonomiko, zerga-pizgarri eta neurri eraginkorren sistema hobetzea; sentsibilizazio- eta prestakuntza-neurriak sustatzea, gizonen eta emakumeen arteko etxeko eta zaintza-lanak banatzeko, eta beste laguntza-sistema batzuk aztertzea kontziliazioko eta adingabeak zaintzeko; haurren arreta hobetzea gurasoen lan-ordutegietara egokitzeke, eta 2 urteko haurren eskolatzeko-erakizun orori erantzutea; eskolaz kanpoko eta aisialdi komunitarioko laguntza-programen hedapena sustatzea; eta enpresetan lana eta familiako bizitza kontziliazteari mesede egiten dioten neurrien negoziazio kolektiboan inklusioa sustatzea.

Genero-indarkeriaren biktime adingabeak prebenitzeke, babesteko eta kalteak erreparatzeke plan integrala: Genero-indarkeriako adierazpenen aurrean jarduerak eta neurriak ezartzeko, arlo horretan Euskadiko Administrazio Orokorraren zerbitzuen arreta integralerako sare bat sortzeke eta koordinatzeke duen garrantzi berezia nabarmenduz, eraginkortasun handiagoa izan dezaten eta eskuragarriagoak izan daitezkeen, hori guztia gogoan izanda edozein motatako genero-indarkeriaren emakume biktimeen eskubideak erabat aitortzea.

Ekimen Legegileak

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Legea: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legea bigarren aldiz aldatzeko lege-proiektua, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen buru dela. Partaidetza-prozesu bat izan du, eta gizarte zibileko eta erakundeetako 400 ekarpenetik gora jaso ditu.



Uraren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea

Agenda Euskadi
Basque Country

20
30

2020 URTEAN
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK **3**

JARDUERAK **3**

PLANGINTZA-TRESNAK **2**

PLANGINTZA-TRESNAK **3**

EKIMEN LEGEGILEAK **—**

EKIMEN LEGEGILEAK **—**

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Ibaietako uren kalitatea

(2019) Ona % 52,8 *

• Ur-hornidura osoa

(2020) % 100

• Uraren unitateko kostua

(2018) 2,05 €/m³

* Ebaluatutako ibaien ur-masaren gainean.

33. Helmuga. Urari buruzko politika egoki bat bultzatzea, haren kalitatea bermatzeko eta alferrikako galeraren, espekulazioaren eta kutsaduraren aurka borrokatzeko.

34. Helmuga. Uraren hornidura, saneamendu eta arazketarako azpiegitura hidraulikoak garatzea eta gauzatzea, indarrean dagoen plangintzaren arabera. Uraren kanonaren bidez biltzen den diruaren % 5 hornidura eta saneamendurako lankidetzaren proiektuetara zuzentzea, garapen bidean dauden herrialdeetan.

35. Helmuga. 2015-2021 aldirako Plan Hidrologikoa berraztertzea.

46

Ingurune naturalaren kalitatea hobetu.

78. Jarduera. Aclima-Basque Environment Cluster eta URA erakundearen artean hitzarmen bat sinatu da, hondakin-uren araztegiaren (HUA) tratatutako saneamendu-urak berrerabiltzea sustatzeko EAEko industriaren.

79. Jarduera. Hornidura, saneamendu eta arazketarako lanetako inbertsioa 9,8 milioi eurokoa izan da; hainbat obra egiten jarraitu da hiru lurralde historikoetan uholde-arriskua murrizteko, 17,3 milioi euroko zenbatekoarekin.

80. Jarduera. 2020an, Uholde Arriskua Kudeatzeko Planen (2021-2027) plangintzaren bigarren zikloari dagokion arriskugarritasunaren eta arriskuaren kartografiaren eguneraketa onartu da.

Plangintza-tresnak

Plan Hidrologikoa 2021: Ekosistema urtarrak luzaroan babesteko, eta uraren zentzuzko kudeaketan eta erabilera eraginkorrean.

Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana 2021: Uholde-arriskua ebaluatzea eta kudeatzea, eta ur-masaren morfoloia gelditzea eta horiek eta babestutako eremuak egoera onean izatea lortzea.

Euskadiko Lur Kutsatzaileen Legea garatzen duen dekretua: Operadore publiko edo pribatu guztiei lurzoruen kalitatearen eta lurzoruen leheneratzearen arloan prozedurak hastea errazteko.



Energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiontzat

Agenda Euskadi
Basque Country **2030**

2020 URTEAN
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK	4	JARDUERAK	2
PLANGINTZA-TRESNAK	1	PLANGINTZA-TRESNAK	1
EKIMEN LEGEGILEAK	2	EKIMEN LEGEGILEAK	-

ADIERAZLEAK	DATUAK
• Energia berriztagarrien kuota azken energia-kontsumo gordinean	(2019) % 14,6
• Intentsitate energetikoa. (kontsumoaren intentsitatea/BPGd - azken energia-intentsitatea barne)	(2019) 62,8 tep/M €
• Energia-faktura: kontsumitutako energiaren urteko kostua	(2018) 2,0 (2019) 5.939 M € arruntak 5 €/m ³

36. Helmuga. Gasaren alde egitea, trantsizio-energia gisa, energia berriztagarriak neurri handiagoan inplementatzeko bidean; eta nazioarteko konexio energetikoa sostengatzea gas eta elektrizitatearen horniduran.

37. Helmuga. Teknologiaren eta enpresen garapena sostengatzea energia-iturri berriztagarri eta jasangarrien erabilera sustatzeko.

38. Helmuga. Aurrezpen eta eraginkortasun energetikoko proiektuak bultzatzea.

39. Helmuga. Gasolia garraiotik gero eta neurri handiagoan ezabatzea, garraioaren gasifikazioa (lehorrekoa eta itsasokoa) eta ibilgailu elektrikoaren erabilera bultzatuz.

19

Energia-politika lehiakorra eta jasangarria.

81. Jarduera. Hidrogenoaren Euskal Estrategiaren zirriborroa egin da; gainera, lankidetzaren publiko-pribatutik biometanoaren ekoizpena sustatzen ari da zabortegietako biogasetik eta nekazaritzako elikagaien industrietatik abiatuta, sarean injektatzeko; eta teknologia- eta industria-proiektuak garatzen ari dira itsas energia eoliko flotagarriari eta olatuen energiari buruz.

82. Jarduera. MEPZ 2020 (Mugikortasun Elektrikoaren Gida Plana) garatu da.

Plangintza-tresnak

Euskadiko Energia Estrategia 2030: 2020an aktibo egon da, jatorri fosileko energiekiko mendekotasuna minimizatzen, berotegi efektuko gas-emisioak murrizteko eta klima-aldaketaren eraginak arintzeko.



Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, osoko enplegu produktiboa eta lan duina sustatzea

Agenda Euskadi
Basque Country



20
30

2020 URTEAN
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

7

JARDUERAK

12

PLANGINTZA-
TRESNAK

4

PLANGINTZA-
TRESNAK

4

EKIMEN
LEGEGILEAK

3

EKIMEN
LEGEGILEAK

-

ADIERAZLEAK

DATUAK

• *Per capita* BPGd

(2019) 34.273 €

• Langabezia-tasa

(2020ko 3. hiruhilekoa) % 10,0

• Batez besteko soldata gordina

(2018) 28.471 €

40. Helmuga. Kalitatezko enplegu inklusiboa sustatzea.

2

Enpleguaren 2017-2020 Plan Estrategikoa onartu.

83. Jarduera. Langile babesgabeenen eta soldata txikiak dituztenen (20.000 eurotik beherako kotizazio-oinarria dutenak) aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak osatu dira.

84. Jarduera. Enplegua sustatzeko tokiko ekintzak egiteko deialdia aktibatu da, eta 42 milioi euro bideratu dira horretarako.

85. Jarduera. COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko alarma-egoera ezartzearen ondorioz jarduerak bertan behera geratu edo eten zaizkien kulturako profesionalentzako laguntzen deialdia egin da (2.500.000 euro).

86. Jarduera. Proiektu bat aurkeztu da, lurralde bakoitzeko langabezia-tasa handiena duten udalerrietan enplegu berdea bultzatzeko.

41. Helmuga. Lanerako kualifikazio eta birziklapena bultzatzea, enprekin, unibertsitateekin eta lanbide-heziketako ikastetxeekin lankidetzan estuan arituz, prestakuntza duala eta enpresa eta erakundetako praktikak bultzatuz.

4

Prestakuntza eta birziklatze profesionala hobetu.

87. Jarduera. 2020-2023 aldirako prestakuntza-programazioa, EAEko langabe eta landuenentzat, 2020-2023 arteko ekitaldietan langabeentzako prestakuntza-planak eta lehenetsuz landunentzako prestakuntza-planak gauzatzeko. (30.300.000 €)

88. Jarduera. 66 milioi euro bideratu dira langabeentzako prestakuntza eskaintzeko urte anitzeko deialdi batean.

42. Helmuga. Gazteen laneratzea bultzatzea eta ekintzailtzaren alde egitea.

5

Gazteen laneratzea sustatu.

15

Ekintzailtzari lagundu.

89. Jarduera. 2020an, hainbat programaren bidez, 33 milioi eurotik gora bideratu dira gazteen kontratazioa sustatzeko. ([Toki-erakundeek gazteak kontratatzea](#) Gazte Enplegurako 2014-2020 Programa Operatiboaren esparruan, [Hezibi programa, kualifikazio apaleko gazte langabeen](#) gizarte-eta lan-aktibazioa, Gazteen Itzulerarako laguntzak, [txanda-kontratuak](#) egiteko laguntzak, Lehen Aukera programa, etab.

43. Helmuga. Gizarte-elkarrizketa eta langileen parte-hartzea euren enpresetan sustatzea, eta langile autonomoen arteko elkarlana ere bai.

6

Elkarrizketa soziala eta parte-hartzea sustatu.

90. Jarduera. Confebask, CCOO eta UGT erakundeekin hitzarmenak egin dira eta [Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko lantaldeek lortutako akordioak eta 2020rako Lan Plana ezartzen duten akordioak](#) onartu dira. Bestalde, Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak 100.000 euro bideratu ditu beren enpresetako langileentzako Partaidetza Planak egiteko, bai gizarte-ekonomiako enpresetarako, bai oraindik halakoak ez direnetarako.

44. Helmuga. Enpresen Gizarte-erantzukizuna sustatzea.

7

Enpresen gizarte-erantzukizuna sustatu.

91. Jarduera. Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak 100.000 euro bideratu ditu EGEn kultura zabaltzeko EAEko gizartean.

45. Helmuga. Gizarte-ekonomiako enpresak bultzatzea.

9

Gizarte-ekonomiaren aldeko apustua.

92. Jarduera. 2020an, hainbat programa eta jarduketan bitartez, 5 milioi eurotik gora bideratu dira gizarte-ekonomiako enpresak sustatzeko (laguntzak horiek sortzeko, langileak kooperatiba eta lan-sozietateetan sartzeko, kudeaketa-tresna aurreratuz hornitzeko, trebatzeko, zabaltzeko eta ikertzeko, interkooperaziorako, etab.).

93. Jarduera. Zehazki, pandemiaren aurkako borrokan, ekitaldian hiru laguntza-lerro espezifiko atera dira:

- LAABentzako ezohikoak: milioi bat euroko zuzkidurarekin, langile autonomoen gutxieneko kotizazioaren bi hileko gastua ordaintzera bideratuta zeuden, baita 1.000 euroko zuzkidurarekin ere enpresako, enpresaren beraren alokairu-gastuak ordaintzeko.
- Enpresa sortu berriak (5 urte) finkatzea; 1.000 euro eman ziren 2020ko martxoaren 14an enpresan zegoen langile bazkide bakoitzeko. 555.000 euro izan dira ekiteko laguntzen artean.
- Pandemiak enpresan izan duen eraginari buruzko diagnostikoa egitea, inpaktu hori arintzeko neurri zehatzak ezartzeko. 550.000 euroko zuzkidurarekin.

46. Helmuga. Laneko osasuna, segurtasuna eta berdintasuna bultzatzea.

10

Osasuna, segurtasuna eta berdintasuna sustatu lanean.

94. Jarduera. Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak lankidetzak ezarri ditu langileen lan-baldintzak eta segurtasun- eta osasun-mailak hobetuko dituzten prebentzio-aukerak bilatzeko eta zabaltzeko. Gainera, Araban, diagnostiko bat egin da pandemiak enpresan izandako inpaktuari buruz, eta inpaktu hori arintzeko neurri zehatzak identifikatu dira (550.000 euro).

Plangintza-tresnak

Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Programa, 2020-2024 «Berpiztu»: EAEko erakundeek COVID-19aren osasun-pandemiak sortutako ekonomia- eta enplegu-krisia gainditzeko erantzun gisa sortu da, galdutako enplegua berreskuratzeko eta langabezia-tasa % 10etik beherakoa izateko 2024. urterako.

Laneko Osasunaren eta Segurtasunaren Euskal Estrategia 2015-2020: 2019-2025 Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Balio Katearen Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala garatu da; laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan prebentzioaren eta zero tolerantziaren kultura ezartzea du xede.

Erakundearteko Ekintzailtza Plana 2020: Ekintzailtzari era integralean laguntzea, proiektu, enpresa eta enplegu lehiakor eta jasangarri berriak lortzeko, bereziki etorkizun oparoko sektoreetan, Euskadiko ekonomia- eta gizarte-erlaketarako etapa berri bat sortuz.

Enplegu Plan Estrategikoa 2017-2020: Langabezia-tasa modu iraunkorrean murriztea du xede, 45.000 enplegu sustatuta 2017-2020 aldian, eta enplegu-aukera txikiagoak dituztenak kontratatzeko pizgarriak abian jartzea.



Azpiegitura erresilienteak eraikitzea,
industrializazio inklusibo eta jasangarria
bultzatzea eta berrikuntza sustatzea

Agenda Euskadi
Basque Country **2030**

2020 URTEAN
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK **7**

JARDUERAK **7**

PLANGINTZA-TRESNAK **4**

PLANGINTZA-TRESNAK **4**

EKIMEN LEGEGILEAK **1**

EKIMEN LEGEGILEAK **-**

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Industriako BPGd

(2019) % 23,9

• I+G gastua / BPGd

(2019) % 1,97

• Pertsonen mugikortasuna lurreko garraio publiko kolektiboaren zerbitzuetan

(2019) 262.021 pertsona

47. Helmuga. Garraio jasangarri multimodala sustatzea, arreta berezia zuzenduz trenbide-garraioari (abiadura handikoa, aldirikoa eta tranbia) eta plataforma logistikoei.

37

Euskadi, korapilo logistikoa. Euskal Y amaitu.

38

Trenbideko garraioa hobetu.

95. Jarduera. Abiadura handiko zerbitzua (euskal Y) martxan jartzean aurrera egin da: Atotxako geltoki berriaren (Donostia) lanak hasi dira, Ezkioko geltokiko lanak lizitatu dira, Hegoaldeko trenbide-bariantea (HTB) eraikitzeko proiektuak lizitatu dira eta protokolo bat sinatu da Lezoko plataforma intermodala garatzeko.

48. Helmuga. Berrikuntzaren, fabrikazio adimenduna gidatzearen eta zerbitzu aurreratuak industrian txertatzearen alde egitea.

12

“Basque Industry 4.0” Euskal Industriaren aldeko Plan integrala.

96. Jarduera. Renove Industria 4.0 programa. 5 milioi euro bideratu dira makineria berria eta ekipamendu aurreratua erosteko, hardwarea zein softwarea, industria-inguruneak modernizatzeko, Industria 4.0 proiektuak landu ditzaten, fabrikazio aurreratuaren arloan.

49. Helmuga. ETEak eta zailtasunak dituzten enpresen birmoldaketa sostengatzea.

13

ETEEi lagundu eta zailtasunak dituzten enpresak berregituratu.

97. Jarduera. 2020an, hainbat programa eta jardueraren bidez, 75 milioi eurotik gora bideratu dira zailtasunak dituzten ETE eta enpresei laguntzeko. Bideratu Berria programak, industria-arloa berriz egituratu eta bultzada berria emateko neurrietarako; Bideratu COVID-19 programa, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorio ekonomikoei aurre egiteko; Indartu programa, aktibo finko berriak eskuratzeko; Gauzatu Industria programa, garapen teknologikoa eta berrikuntza areagotzeko; edo segurtasun, ingurumen eta beste arlo batzuetako prestazioak hobetzeko programak, besteak beste.

50. Helmuga. Proiektu industrial estrategikoak sustatzea.

14

Proiektu industrial estrategikoak garatu.

98. Jarduera. HAZITEK programa, 87,5 milioi euroko zuzkidurakoa, Ikerketa Industrialeko edo Garapen Esperimentaleko Proiektuak laguntzeko, lehiakizkoak nahiz estrategikoak, hala enpresa-sektorean, nola Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2020 Planean jasotako espezializazio-esparruetan.

51. Helmuga. Ikerkuntza, berrikuntza eta teknologiaren alde egitea, arreta berezia zuzenduz fabrikazio aurreratuari, energiari eta bio-zientzia-osasunari.

16

Ikerkuntza, Berrikuntza eta Teknologiaren aldeko apustua.

99. Jarduera. 2020an, hainbat programa eta jardueraren bitartez, 200 milioi eurotik gora bideratu dira ikerketa, berrikuntza eta teknologia sustatzeko (EMAITEK PLUS programa, IKZko Ikerketa Kooperatiboko Ikerketa Zentroei eta Teknologia Zentro Multifokalizatuei jarduera ez-ekonomikorako laguntza emateko; ELKARTEK programa, ikerketa kolaboratiboa egiteko; BIKAINTEK programa, ikertzaile doktoreak kontratatzen laguntzeko I+G proiektuak garatzeko, besteak beste.

52. Helmuga. Berrikuntza ez-teknologikoa eta enpresa-kudeaketa aurreratua garatzea.

17

Berrikuntza ez-teknologikoa eta enpresa-kudeaketa aurreratua garatu.

100. Jarduera. INNOBIDEAK 2020 programaren deialdia egin da, hiru lerroetan, produktu, prozesu eta merkatuaren arloko berrikuntza-proiektuak sustatzeko eta negozio-eredu berriak antolatu eta garatzeko; langileek enpresan parte hartzea sustatzea, gardentasun, konfiantza, ekitate, egonkortasun eta barne-lankidetzaren handiagotzea oinarritutako enpresa-ereduetarantz aurrera egiteko; eta Kudeaketa Aurreratuko metodologiak, tresnak eta oinarriak ezartzen laguntzeko.

53. Helmuga. Informazioaren eta ezagutzaren gizartea sustatzea, teknologien aukerak aprobetxatzeko lehiakortasuna –zibersegurtasuna barne sartuta–, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko.

18

Euskadi Europako erreferente bihurtu EIKTak aplikatzen, industriaren esparruan.

101. Jarduera. «Industria Digitala» programaren 2020ko deialdia egin da (2.360.000 €), eta telelana sartu da diruz lagundu daitekeen kontzeptu gisa koronabirusak eragindako osasun-krisiari erantzuteko. Gainera, [telelana autonomoetan eta ETE-etan berehala ezartzeko eta aholkularitza emateko zerbitzua jarri da abian](#) (390.000 €), beren etxetik jarduerarekin edo haren zati batekin jarraitzea ahalbidetuko dien teknologiaren erabileran laguntzeko; eta «Zibersegurtasun Industriala» laguntza-programaren 2020ko oinarri arautzaileak onartu eta argitaratu dira (1.300.000 €).

Plangintza-tresnak

Euskadiko 2017-2020 aldirako Industrializazio Plana «Basque Industry 4.0»: Zailtasunak dituzten enpresei laguntza ematea: finantzaketa-tresnen eskaintza sustatzea; I+G gastua handitzea eta nazioartekotzea; EAEko enpresen hazkundera eta errotzea bultzatzea eta enplegua sortzen duten inbertsioak erakartzea; etorkizuneko industria-teknologia arloetan proiektu berriak sustatzea; balio-kateak luze osoan digitalizatzearen alde egitea, zerbitzu aurreratuak garatzea eta lankidetzaren sustatzea kluster-politika baliatuz.

Euskadiko espezializazio adimendunaren estrategia (RIS 3): I+G+B arloko laguntza-programak RIS3 Euskadiko espezializazio adimendunaren strategiaren helburuekin bat datoz eta I+G arloko aurrekontu publikoa urtero % 5 hazteko konpromisoa betetzen dute.

Euskadiko Agenda Digitala 2020: Euskadin Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartea behar bezala sustatzeko agenda, Euskadi bikaina izan dadin lehiakortasuna, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko teknologien erabileran.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2020: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak (2030) 10 urtean 20.000 milioi euroko inbertsioa egitea ekarriko du.



Herrialde bakoitzaren barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea

Agenda Euskadi
Basque Country

20
30

INTERVENCIONES
MÁS SIGNIFICATIVAS
REALIZADAS EN EL AÑO 2020

HELMUGAK

7

JARDUERAK

9

PLANGINTZA-
TRESNAK

7

PLANGINTZA-
TRESNAK

6

EKIMEN
LEGEGILEAK

1

EKIMEN
LEGEGILEAK

-

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Desgaitasuna duen pertsonen enplegu-tasa

(2018) % 25,8

• Atzeritarren enplegu-tasa

(2019) % 52,8

• Gini indizea

(2018) 26,7

54. Helmuga. Zahartze aktiboa eta belaunaldiarteko elkartasuna bultzatzea.

135

Zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko elkartasuna.

102. Jarduera. Euskadi da [zahartze aktiborako ADLIFE proiektuaren](#) burua, Kronikgune Osasun Zerbitzuen Ikerketa Institutuaren bitartez; Europako bederatzi herrialdeetako 11 erakundek ADLIFE proiektua («Integrated personalized care for patients with advanced chronic diseases to improve health and quality of life») garatzeko osatutako partzuergoa koordinatuko du.

55. Helmuga. Pertsonak zaintzeko zerbitzu publikoa optimizatzea, osasun-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen arteko lotura estua sendotuz.

134

Osasun-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen arteko lankidetzaren estua finkatu.

103. Jarduera. Erdu programa (Acercar), «Alarma-egoeran edo konfinamendu-egoeretan sendagaiak eta ordezkotako kontsumoak ematekoa»; erakundeetatik droga-mendekotasun eta/edo osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen medikamentuak eskuratzeko erraztasunak emateko beharrari erantzuten zaio, bai eta konfinamendu-egoeran dauden eta droga-mendekotasuneko arazoak dituzten pertsonen kontsumo alternatiboetarako bide emateko eta gatazkak prebenitzeko beharrari ere. (375.000 €)

104. Jarduera. [Betirako programa](#) jarri da abian, COVID-19aren ondorioz hurbileko pertsonak galdu dituztenen doluan arreta emateko; halaber, Etika Soziosanitarioko graduondoko bat antolatu da, esparru soziosanitarioan Euskadiko Etika Batzordeen Koordinazio Batzordea bultzatzeko 2017-2020 aldirako lehentasunen esparruan.

56. Helmuga. Hirugarren Sektorre Soziala sostengatzea.

138

Hirugarren Sektorre Soziala babestu.

105. Jarduera. Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzen deialdia egin da. (4.700.000 €); eta Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren errealitateari buruzko diagnostiko bat aurkeztu da. Hain zuzen, sektore horretan 3.900 erakundetik gora daude eta gizartea eraldatzea xede duten solidaritate antolatu baten adierazpena da ([2019ko Barometroa](#)).

57. Helmuga. Boluntarioen lana bultzatzea.

137

Boluntarioen lana bultzatu.

106. Jarduera. GUZTION ARTEAN bultzatu da, SOLIDARITATE ANTOLATUKO sare bat, koronabirusaren krisiaren aurrean.

107. Jarduera. Gazteen borondatezko «Auzolandegiak» programarako plazen deialdia egin da. Gainera, «Bherria Egonaldia» jarri da abian, Euskadin herritarrak aktibatzekeo prozesuak indartzera bideratutako espazio bat.

58. Helmuga. Immigrazioaren aldeko eta arrazakeria eta xenofobiaren kontrako Gizarte Ituna bultzatzea.

140

Gizarte-ituna immigrazioaren alde eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka.

108. Jarduera. [Migraziorako Euskadiko Itun Soziala](#) ezarri da, eta COVID-19aren neurri sanitarioetara egokitu dira Euskaditik igarotzen diren migratzaileak hartzeko zentroa

59. Helmuga. Dibertsitate eta elkartasunaren kudeaketa positiboa, bizikidetzaren eta giza eskubideen alorrean sortzen diren erronka berrien aurrean (immigrazioa, pertsona errefuxiatuak, erlijio-aniztasuna...).

165

Aniztasuna eta elkartasuna positiboki kudeatu, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan sortzen diren erronken aurrean.

109. Jarduera. 150.000 euroko [ezohiko laguntzak](#) onartu dira, COVID-19ak eragindako larrialdi-egoerari aurre egiteko, bai zaurgarritasun-egoeran dauden biktimentzat (100.000 €) bai Eusko Jaurlaritzak nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonentzako aldi baterako harrera-zentroetarako (50.000 €). Bestalde, Lehendakariak ADOS Batzordearen lehenengo bileran parte hartu du EAEko meskitetako imamekin batera, eta ADOS Batzordeak bultzatutako Bizikidetzaren aldeko Manifestua aurkeztu da.

60. Helmuga. Bakearen eta bizikidetzaren kultura sustatzea, giza eskubideen errespetua eta pluraltasuna oinarritzat hartuta.

166

Bake- eta bizikidetzakultura, giza eskubideen eta pluralismoaren errespetuan oinarrituta.

110. Jarduera. Bizikidetzak eta giza eskubideen arloan proiektuak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuetarako laguntzen deialdia egin da (900.000 €), eta laguntzak eman zaizkie bizikidetzak eta giza eskubideen arloan proiektuak egiten dituzten udalerrri eta toki-erakundeei (250.000 €).

Plangintza-tresnak

Immigrazioarako Euskal Estrategia: Migrazioarako Euskal Itun Soziala: Migrazioaren arloko erronkei erantzuteko gizarte-erakunde eta EAEko instituzioetatik.

Hirugarren Sektorea Sustatzeko Estrategia (2017-2020): Estrategia bateratua, gizarte-sarea eta lankidetzak bultzatzeko Euskadiko esku-hartze sozialaren arloko sektoreen artean.

Boluntariotzaren Euskal Estrategia 2017-2020: Solidaritate-politikei buruzko topaketa-organoa da, eta Euskadin borondatezko ekintza sustatzeko zereginean modu koherente, eraginkor eta koordinatuan jardutea du xede.

Zahartze Aktiborako Euskal Estrategia 2015-2020: Euskadin gizartea eta antolaketa aldatzea sustatzeko, biztanleriaren egiturarekin eta zaharren gizarte-rolarekin bat datorren gobernantza-eredua sortzeko.

Bizikidetzak eta Giza Eskubideen Plana 2020: Plan honen helburua «gizartea elkartzea» izan da, giza eskubideen eta horien oinarriko giza duintasunaren balio gorenaren inguruko adostasunean oinarrituta.

Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia 2018-2020: Euskal Autonomia Erkidegoan ijito herriaren gizartratzean eta parte hartze sozialean aurrera egitera bideratutako proposamenen multzoa.



Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea

Agenda Euskadi
Basque Country

20
30

2020 URTEAN
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

7

JARDUERAK

8

PLANGINTZA-
TRESNAK

8

PLANGINTZA-
TRESNAK

8

EKIMEN
LEGEGILEAK

2

EKIMEN
LEGEGILEAK

—

ADIERAZLEAK

• Kriminalitate-tasa (arau-hauste penalak 1.000 biztanleko)

• Hirietako PM 10 kontzentrazioak

• Hiri-hondakinen birziklapen-tasa

DATUAK

(2019) ‰ 43

(2019) 13,6 µgr/m³

(2018) 168 kg/pertsona

61. Helmuga. Lurralde-estrategia jasangarri, sozial, adimendun, orekatu eta parte-hartzailea sustatzea.

47

Lurraldearen oreka. Lurralde-plangintza eta estrategia.

111. Jarduera. [Euskadiko Hiri Agenda - Bultzatu 2050](#) ezarri da, Nazio Batuen Hiri Agenda Berria oinarri hartuta, eta 11. GJHrekin bat etorruta, inor atzean geratuko ez den hiri inklusibo, seguru, erresiliente eta jasangarriak lortzeko.

62. Helmuga. PHiriko zaharberritze, biziberritze eta berriztapena sustatzea.

48

Hiri-birgaitzea, -berroneratzea eta -berritzea.

112. Jarduera. [Etxebizitza-erakinak eta etxebizitzak birgaitzeko programaren](#) aurrekontu-estaldurarako baimena eman da, egiturazko (estalkiak eta fatxadak), irisgarritasuneko (igogailu-instalazioak, batez ere) eta energia-efizientziaren arloko berritzeen bidez. Zenbatekoa: 20,4 milioi euro, dirulaguntzetan. Horietako 6,4 M € 2020an, eta 14 M € 2021ean. Kalkulatu da 400 M eurotik gorako inbertsio pribatuak egingo direla (funtsean, etxejabeen elkartean kontura), aipatutako dirulaguntzekin mobilizatuko direnak.

113. Jarduera. [Plan Zero Plana](#) jarri da abian, Eusko Jaurlaritzaren alokairuko etxebizitzaren parke publikoaren energia-efizientzia hobetzeko, eta, horri esker, egun dauden eraikinek epe ertainean energia-kontsumorik ia izan ez dezaten. 7.500 etxebizitzak ia ez dute energia-kontsumorik izango.

63. Helmuga. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa garatzea.

142

Etxebizitzaren Legean aitortutako etxebizitza bat izateko eskubide subjektiboa garatu.

114. Jarduera. 5.039 familiari etxebizitza izateko eskubide subjektiboa aitortzeko betebeharrak aitortzea; gainera, prozesu parte-hartzaile bat irekiko da etxebizitzaren COVID-19 osteko etorkizunaz eztabaidatzeko. COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz zaurgarritasun ekonomiko eta sozialeko egoeretarako alokairurako laguntzak arautu eta deitu dira; 15.500.000 euroko zuzkidura izango dute. Etxebizitzaren arloko premiazko neurrien eta [finantza-lankidetzako dekretua](#) jarri da indarrean.

64. Helmuga. Garraio publiko jasangarri eta intermodala bultzatzea.

33

Garraio publikoa eta intermodalitatea sustatu.

34

Mugikortasun jasangarriaren estrategia.

115. Jarduera. MOVEUSKADI (APP) aplikazioa garatu da, Euskadiko garraio publikoari eta bizikleta elektrikoak eskuratzeko puntuei buruz informatzeko eta bidaiak antolatzeko. Hauek jarri dira abian: Mugikortasun eraginkor eta jasangarria sustatzeko laguntza-programa (MOVES 2020), 4.640.001 euroko zuzkidurarekin; Ibilgailu efizienteen eta alternatiboen aldeko RENOVE programa (RENOVE 2020), 10.000.000 euroko zuzkidurarekin; eta Garraio eta mugikortasun efizientearen aldeko inbertsioen laguntzak (PATYME 2020), 2.000.000 euroko zuzkidurarekin.

65. Helmuga. Kultura eta kultura-ondarea dinamizatzeko eta sustatzeko estrategia bat bultzatzea.

108

Kultura dinamizatzeko eta sustatzeko estrategia sustatu, 2020. urteari begira.

113

Ondare kulturala babesteko politikak gehiago zabaldu, bai eta haien eragin soziala ere.

116. Jarduera. EAEn eragina duten Hirigintza Plan Orokorren txostenak egin dira, babestutako ondarearen gaineko kalteak saihesteko asmoz. Gainera, laguntzen deialdiak egin dira euskal kultura-ondarea babesteari buruzko ikerketak egiteko, ondare hori babestu eta kontserbatzeko, museoetarako, bildumetarako...

66.Helmuga. Euskararen erabilera sustatzea.

116

Euskararen gizarte-hazkundera finkatu, euskal hiztunen kopurua handituz eta haien hizkuntza-gaitasuna hobetuz.

117

Aisialdian eta formalak ez diren eremu funtzioaletan zabaldu euskararen erabilpena.

117. Jarduera. Euskaltegiei 20.000.000 eurotik gorako dirulaguntzak eman zaizkie. Horrez gainera, material didaktikoak sortu eta argitaratu dira, [Ikasten](#) autoikaskuntzarako plataforma kudeatzen jarraitu da; hainbat erakunderekin lankidetzan aritu da (Osakidetza, [Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia...](#)) langileak euskalduntzea sustatzeko; 2009/2010 ikasturtetik orain arteko emaitzak aztertu dira euskaltegietan eta hizkuntza-eskola ofizialetan; eta [doakotasuna](#) lortzeko aurrera egin da 2020an, administrazio publiko guztiak tartean sartuta.

67. Helmuga. Larrialdien aurreko prebentzio-eta alerta-sistema indartzea, baita herritarren autobabesa ere.

153

Larrialdiak prebenitzeko eta ohartarazteko sistema eta herritarren autobabesa indartu.

118. Jarduera. [Herritarrek garaiz ohartarazteko alerta-sistema](#) bat aurkeztu da, larrialdi-egoeretan euren burua babestu dezaten.

Plangintza-tresnak

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG 2040).

Euskadiko Hiri Agenda Bultzatu 2050: Nazio Batuen Hiri Agenda Berrian oinarrituta eta Garapen Jasangarrirako 11. Helburuarekin bat etorrita.

Eraikitako parkean esku hartzeko epe luzeko estrategia.

2018-2020 Etxebizitzaren Plan Zuzendaria.

Jasangarritasunerako Udalerrien Sareko Plan Estrategikoa 2020.

Garraio Jasangarriaren Gida Plana 2030.

Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020.

Euskal Kultura Auzolanean 2020 Kulturaren Euskal Plana.



Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea

Agenda Euskadi
Basque Country



20
30

2020 URTEAN
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

4

JARDUERAK

4

PLANGINTZA-
TRESNAK

4

PLANGINTZA-
TRESNAK

5

EKIMEN
LEGEGILEAK

—

EKIMEN
LEGEGILEAK

—

ADIERAZLEAK

• Azken energia-kontsumoa

• Materialen etxeko kontsumoa

• Biztanleko sortutako hiri-hondakinen ratioa

DATUAK

(2018) % 91

(2017) 12,0 t*

(2018) 168 kg/pertsona

* 2020ko apirilean eguneratua

68. Helmuga. Ekonomia zirkularren alde egitea.

42

Ekonomia zirkularra bultzatu.

119. Jarduera. 2020ko urtarrilean Euskadiko ekonomia zirkularrerako Estrategia 2030 onartu zen. Produktu eta materialen bizi-zikloaren —ekoizpenaren, kontsumoaren, hondakinen kudeaketaren eta bigarren mailako lehengaien— inguruan dago antolatuta eta lehiakortasuna eta berrikuntza sustatzeko behar diren baliabideak ere hartzen ditu barnean. Gainera, Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea 2020 programa gauzatu eta ebaluatu da.

69. Helmuga. Ingurumen aldetik eredugarria den administrazio publikoaren konfigurazioan aurrera egitea.

45

Politika publikoetan ingurumenaren aldagaia txertatu.

120. Jarduera. Euskadik hartu du [Garapen Jasangarriko Eskualdeetako Gobernuen Nazioarteko Sarearen \(Regions4\) presidentetza](#) 2020–2023 aldirako. 2030 Agenda proiektua eta Garapen Jasangarriko Helburuak izango dira aurrerantzean era Regions4 egitasmoaren bide-orri nagusia, COVID-19aren pandemiari eta horrek sortutako inpaktu handiei erantzuteko, eta, aldi berean, lurralde inklusibo, jasangarri eta erresilienteetarantz aurrera egiteko. Gainera, ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozeduren [izapidetze elektronikoa](#) jarri da martxan.

70. Helmuga. Informazio azkar eta eraginkorra eskaintzea kontsumitzaileak konprometituagoak eta arduratsuagoak izan daitezen

32

Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua.

121. Jarduera. Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak lehentasuna eman dio prestakuntzari, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek kontsumo arduratsuko irizpideen arabera jokatzeko, euren eskubideak, betebeharrak eta horiek egikaritzeko moduak ezagutzeko, ondasunak erostean edota zerbitzuak kontratatzean kontuan har ditzaten eta merkatuan esku hartzen duten guztiek errespetatu ditzaten.

71. Helmuga. Turismo jasangarriaren bikaintasuna sustatzea.

28

Bikaintasuna eta jasangarritasuna sustatu euskal turismo jardueran.

122. Jarduera. Ekintzailtzari eta turismo-enpresen lehiakortasunaren hobekuntzari laguntzeko 2020 ekitaldirako laguntzak arautu eta horien deialdia egiteko agindua.

Plangintza-tresnak

Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020: Hondakinen gaikako bilketa eta banaketa % 75era arte handitzeko, eta hondakinen berrerabilera, birziklatzea eta balorizazioa % 60ra arte areagotzeko.

Euskadiko Ekonomia Zirkularren Estrategia 2030: Produktibitate materiala % 30 areagotzeko, material zirkularren erabilera % 30 handitzeko, eta BPGd-ko unitateko hondakinen sorkuntza-tasa % 30 murrizteko.

Euskadiko erosketa eta kontratazio publiko berdearen programa 2020.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Plana 2017–2020.

Kontsumobideren Plan Estrategikoa 2018–2020: Gizarte baketsu eta parekidea eraikitze bide gisa kontsumo arduratsua xede duten ekintzak indartzeko.



Neurri urgenteak hartzea
klima-aldaketaren eta haren
ondorioen aurka egiteko

Agenda Euskadi
Basque Country



20
30

2020 URTEAN
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

5

JARDUERAK

5

PLANGINTZA-
TRESNAK

1

PLANGINTZA-
TRESNAK

1

EKIMEN
LEGEGILEAK

1

EKIMEN
LEGEGILEAK

1

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Berotegi-efektuko gasen emisioak % 20 murriztea (* oinarritzko urtea: 1990)

(2018) % 91,1

• CO2 kontsumoa baliokidea, kW/ordu

(2017) 296 gr CO₂/kWh

• Airearen kalitatearen indizea

(2019) % 91,4

72. Helmuga. Karbono gutxiko ekonomia lehiakorra bultzatzea.

73. Helmuga. Aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa sustatzea.

74. Helmuga. Energia berriztagarrien erabilera bultzatzea.

75. Helmuga. Eraikuntza jasangarria, ekodiseinuaren sustapena eta garraio publikoaren erabilera bultzatzea.

76. Helmuga. Klima-aldaketari egokitzeko ikuspegia integratzea Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak onesteko prozesuan eta lurralde- eta hiri-plangintzako tresnetan.

41

Karbono gutxiko ekonomia lehiakorra bultzatu.

123. Jarduera. Lankidetzeta-hitzarmena [BC3 Basque centre for Climate Change-Klima Aldaketa Ikergai](#) erakundearekin, klima-aldaketari buruzko ikerketa, dibulgazio eta trebakuntzako jarduerak sustatzeko.

124. Jarduera. Aurrerapenak egin dira Klima 2050 estrategian, Urban Klima 2050 proiektuaren esparruan, klima-aldaketa apaltzeko eta/edo klima-aldaketara egokitzeko. Horretarako, herritarrak ahalduntzeko eta konprometitzeko metodologia garatu da, emaitzak kalkulatzeko erosketa publikoarekin, hiri-eremuetako proiektu pilotuekin eta/edo erakusleekin lotuta, eskualde mailan BEGen emisioak kalkulatzeko tresna garatuko da eta klimaren eta energiaren plan integratuak egiteko gida egingo da, besteak beste.

125. Jarduera. Plana abian jarri da Jaurlaritzaren alokairuko parke publikoan [ia energiari ez kontsumitzea](#) lortzeko.

126. Jarduera. Eusko Jaurlaritzak akordio bat sinatu du [NBE Ingurumenarekin](#) garapen-bidean dauden herrialdeei ekonomia zirkularrean eta ekodiseinuan laguntzeko.


127. Jarduera. «Udalsarea 2030eko proiektu berritzaileentzako laguntzeen ideia-lehiaketaren» lehenengo deialdia egin da, udal-mailan hedatzeko KLIMA 2050 Euskadiko Klima Aldaketaren aurkako Estrategia.

Plangintza-tresnak

Klima Aldaketaren Estrategia 2050-Klima 2050: Plangintza-tresna 2050eraino, 2030erako tarteko helburuekin, klima-aldaketa apaltzeko eta klima-aldaketara egokitzeko.

Ekimen Legegileak

EAEko Ingurumen Administrazioaren Legearen proiektua: EAEko ingurumen-estrategia jasangarriaren ekimen guztiak sustatuko dituen legegintza-esparrua, gai honetan dagoen legeria integratu eta eguneratzea, emisioak murrizteko helburuak ezartzea eta klima-aldaketaren aurkako borroka sustatzeko neurri arauemaileak txertatzea.



Ozeanoak, itsasoak eta itsas
baliabideak mantentzea eta modu
jasangarrian erabiltzea, garapen
jasangarriari begira

Agenda Euskadi
Basque Country



20
30

2020 URTEAN
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK 4

PLANGINTZA-
TRESNAK 2

EKIMEN
LEGEGILEAK -

JARDUERAK 4

PLANGINTZA-
TRESNAK 2

EKIMEN
LEGEGILEAK 1

ADIERAZLEAK

• Gainazaleko ur-masen kalitatea

• Bainatzeko uren kalitatea

• Ibaietako uren kalitatea

DATUAK

(2019) % 54,2

(2018) % 87,3

(2019) % 52,0

77. Helmuga. Arrantza jasangarri eta lehiakorra sustatzea.

78. Helmuga. Berrikuntza eta ikerkuntza sustatzea arrantza azpisektorean.

26

Euskadiko lehen sektorea garatu.

128. Jarduera. Aztiren bidez, klima-aldaketak lau espezieren (aingira, hegalaburra, Atlantikoko atun moja eta Kantauriko antxo) arrantzan dituen efektuak zehazteko lanean ari da. Gainera, atunen sektorerako ikerketa-estrategia ezarri da, arrantza-jardunbide arduratsuak egiten direla egiaztatzeko.

129. Jarduera. Egoitza-portua duen flotaren arrantza-jarduera aldi baterako eteteko laguntzak argitaratu dira, Kantauri itsasoko arte txikien erroldako artisau-flotaren atsedean biologikoak ukituentzako, eta arrantza-sektorearen lehiakortasunari eusteko laguntzen deialdia egin da, COVID-19ak eragindako alarmaren ondoriozko laguntzen aldi baterako esparruaren babesean (3 milioi euro).

79. Helmuga. Lehorretik itsasora doazen isurketen kudeaketa jasangarria.

46

Ingurune naturalaren kalitatea hobetu.

130. Jarduera. Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoa interpretatzeari eta aplikatzeari buruzko [jarraibide teknikoa](#) onartu da, lurzorua eta lurpeko uraren egoera zehazteko oinarritzko txosten bat eskatzearekin lotuta.

80. Helmuga. Kostaldea babestea lurzorua erabilerak arautzearen bidez.

47

Lurraldearen oreka. Lurralde-plangintza eta estrategia.

131. Jarduera. Euskadiko itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko laguntzen deialdia egin da (Itsaspen eta IAEF programak), kostaldeko komunitateei beren ekonomiak dibertsifikatzen laguntzeko, enplegua sortzeko eta Europako kostaldeetako bizi-kalitatea hobetzeko proiektuak finantzatzeko.

Plangintza-tresnak

Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana: EAEko itsasertza osatzen duen ondare naturalaren ingurumen- eta ekologia-babesa areagotzeko.

Euskadiko Arrantza eta Akuikulturako 2020 Plana: Ekonomia-hazkunde integratzaile, zentzudun eta jasangarriari mesede egiteko, bai arrantza-jardueraren alorrean, bai arrantzaren mendeko komunitate eta guneeetan.

Ekimen Legegileak

Euskadiko Natura Ondarearen Kontserbazio Legearen proiektua: Lege berriak zeharkako ikuspegia emango dio natura-ondareari, natura-ingurunearen kudeaketan eskumenak dituzten administrazioen arteko koordinazioa hobetuko du eta zuzeneko lotura ezarriko du klima-aldaketaren arloko politikekin.



Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzea eta modu jasangarrian erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta lehengoratzea, eta biodibertsitatearen galera gelditzea: lehorreko ekosistemak eta biodibertsitatearen kudeaketa jasangarria

Agenda Euskadi
Basque Country



20
30

2020 URTEAN
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK	6	JARDUERAK	3
PLANGINTZA-TRESNAK	4	PLANGINTZA-TRESNAK	6
EKIMEN LEGEGILEAK	1	EKIMEN LEGEGILEAK	-

ADIERAZLEAK

- Kutsatuta egon daitezkeen eta erabilera berrietarako leheneratu diren lurzoruen azalera
- Espazio naturaletan zuhaitzak aldatuta dauden azaleraren dentsitatea

DATUAK

(2017) % 11,3 ha

(2016) ‰ 67,29 ha

81. Helmuga. Lehorreko ekosistemen erabilera jasagarria sustatzea lurzoruaren erabilerak arautzearen bidez.

47

Lurraldearen oreka. Lurralde-plangintza eta estrategia.

132. Jarduera. Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek (LAG) Espainiako Arkitektoen Elkargoen Goi Kontseiluaren (CSCAE) 2020ko Arkitektura eta Hirigintzako saria jaso dute, «balio arkitektonikoak jasagarritasunarekin uztartzeagatik, baliabideak optimizatzeagatik eta hiri-habitataren eta habitat naturalaren arteko berrorka lortzeko helburuagatik, NBEren 2030 Agendaren helburuetan agindutakori jarraikiz».

82. Helmuga. Ingurumen-hezkuntzako politikak indartzea, herritarrek ingurumenaren babes eta kontserbazioan duten erantzunkidetasunean aurrera eginez.

83. Helmuga. Biodibertsitatea babestea.

84. Helmuga. Europako gune babestuen Natura 2000 Sarea osatzen duten espazioen antolamendu-planak garatzea.

46

Ingurune naturalaren kalitatea hobetu.

133. Jarduera. Eusko Jaurlaritzaren jasagarritasunerako hezkuntza-zentroyen «Ekoetxeak» sareak 300 jarduera baino gehiago antolatu ditu lau ekipamenduetan, eta 52.000 pertsona baino gehiago jaso ditu 2020an. Antolatutako jardueren % 34 baino gehiagotan, Ekoetxeenekin bat datozen helburuetan lan egiten duten tokiko eragileen ekimenak diseinatu, garatu edo babestu dira. Gainera, Ingurumen Hezkuntzako Aztertu 2020 programa garatu da, ingurumena ezagutzeko eta herritarren parte-hartzea bultzatuz, ingurumena zaintzeko beharraz ohartarazi eta kontzientziatu nahi duena. Guztira, 27.119 pertsonak parte hartu dute. Jarduera mota zehatz horiekin batera, [2030erako Euskadiko Jasagarritasunerako Hezkuntza Estrategia](#) abian jartzen jarraitu da.

85. Helmuga. Nekazaritza ekologikoa sustatzea.

86. Helmuga. Berrikuntza eta ikerkuntza sustatzea nekazaritza azpisektorean.

26

Euskadiko lehen sektorea garatu.

134. Jarduera. Hainbat proiektu garatu dira laboreen eta teknologien egokitzapenaren esparruan, klima-aldaketak nekazaritzan dituen ondorioak ahalik eta gehien mugatzeko eta klima-aldaketan duten eragina arintzea xede duten nekazaritza-jardunbide egokiagoak sustatzeko: «Etorkezuneko klima-egoerak lantzea». Gainera, Bioekonomiaren Euskal Aliantza sortu da, Euskadiren ekonomia dibertsifikatzeko eta garapen jasagarriari ekarpena egiteko, eta Euskadiko Nekazaritza Ekologikoaren Sustapenerako Plan berria (2020-2023) egin da.

Plangintza-tresnak

2020rako Ingurumen Esparru Programa.

Euskadiko Bioaniztasun Estrategia 2030: Natura-ondarearen arloko 2030era arteko lehentasunak eta konpromisoak finkatzen dituen tresna.

2020rako Geodibertsitate Estrategia.

Lurzorua Babesteko Estrategia 2050.

Lurzoru kutsatuak kudeatzeko eta leheneratzeko plana. [Euskadiko ingurumen-profila 2020:](#) Lurzorua istripuz industria-jatorriko kutsatzaileekin kutsatzearen aurkako borrokaren egungo egoeraren argazkia.

Nekazaritzako eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala.



Garapen jasangarrirako gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta euren jarduerak eta kontuak azaltzen dituzten erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan

Agenda Euskadi
Basque Country

20
30

2020 URTEAN
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

10

JARDUERAK

9

PLANGINTZA-
TRESNAK

8

PLANGINTZA-
TRESNAK

7

EKIMEN
LEGEGILEAK

2

EKIMEN
LEGEGILEAK

2

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Herrialdeko gobernuarekiko konfiantza

(2020) % 76

• Nazioarteko gardentasun-indizea

(2016) 100,0

• Herrialdeko demokraziaren funtzionamenduari buruzko iritzia

(2019) % 59

87. Helmuga. Bake eta bizikidetzaren kultura sustatzea, giza eskubideen errespetua eta pluraltasuna oinarritzat hartuta.

166

Bake- eta bizikidetzaren kultura, giza eskubideen eta pluralismoaren errespetuan oinarrituta.

135. Jarduera. [Bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuak](#) egiten dituzten udalerritarako (250.000 €) eta [irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuetarako](#) (900.000 €) laguntzen deialdia.

88. Helmuga. Administrazio Publiko ireki, parte-hartzaile, garden eta eraginkorra bultzatzea.

60

Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu.

136. Jarduera. [Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien kudeaketa-eredua](#) arautu da Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan; sektore publiko autonomiko osoaren IKTen arloko politika komun eta bateratua ahalbidetzen du. Bestalde, [belaunaldi berriko banda-zabaleko sareak zabaltzea](#) Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle-guneetan, eta Euskadiren erabateko konektibitatea lortu da.

89. Helmuga. Kargu publikoen osotasuna segurtatzea.

57

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikodunen integritate etikoa ziurtatu.

137. Jarduera. Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoaren (PEGIP 2020) esparruan, «Zintzotasunari» dagokion 4. ardatz estrategikoa garatzen jarraitu da, zeharkako ikuspegiarekin, zintzotasun instituzionalaren politikan sakontzeko, besteak beste, Etika eta Jokabide Onaren Kodea ezarriz, eta Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazka arautzen dituen 1/2014 Legearen betebeharrak kontrolatzeko langile-erregistroko zerbitzua bultzatuz.

90. Helmuga. Dibertsitate kulturalak eta arrazakeria zein xenofobiaren prebentzioak dituzten balio positiboak sentsibilizatzeko kanpainak bultzatzea.

140

Gizarte-ituna immigrazioaren alde eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka.

138. Jarduera. 2020. urtean, Euskadira heltzen diren eta Europako beste herrialde batzuetara joatea helburu duten [Iragaitzazko migratzaileentzako arreta humanitarioa emateko Kontingentzia Plana](#) abian jarri da.

91. Helmuga. Segurtasun- eta polizia-zerbitzu publiko eraginkor eta hurbila sustatzea.

148

Segurtasun zerbitzuak eta Ertzaintza herritarrengana gerturatzen jarraitu.

139. Jarduera. 2020an, Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Nagusia 2020 egin da, herritarren, gizarte-eragileen, erakunde publiko eta pribatuen eta administrazioen parte-hartzea sustatzeko, beren eskumenen esparruan, segurtasun-arazoei modu integralean erantzuteko asmoz. Horrez gain, bide-segurtasuna ahalik eta gehien indartu da, eta mugikortasun jasagarriagoa eta seguruagoa izaten lagundu da; horrela, erantzuna eman zaie etengabe aldatzen ari den gizarte batek dakartzan erronka berriei.

92. Helmuga. Sistema judizial moderno, azkar eta eraginkorraren alde egitea, eta adingabeentzako arreta judiziala garatzea.

155

Sistema judizial moderno, azkarra eta eraginkorra.

158

Adingabeentzako arreta judiziala garatu.

140. Jarduera. Justizia.eus atariaren edukia modernizatu, bultzatu eta hobetu da, aplikazio informatikoak hobeto kudeatzeko eta horiek hobeto funtzionatzeko, segurtasun informatikoaren eredia hobetzeko eta datu pertsonalak babesteko. Beste egitasmo batzuen artean, bista- eta bideokonferentzia-aretoetako grabaketa-sistemak berri dira, eta pilotu bat jarri da abian Gasteizko Justizia Jauregian, teknologia aurreratu eta segurtatu bihurtzeko. Bestalde, lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu da EEerekin, energia-auditoretza lantzeko Euskadiko justizia-jauregi guztietan, eta mugikortasun-planak egingo dira 100 langiletik gorako eraikinetarako.

93. Helmuga. Gatazkak konpontzeko sistema alternatiboak bultzatzea.

159

Gatazkak ebazteko sistema alternatiboak bultzatu.

141. Jarduera. Justizia Leheneratzailearen Zerbitzuan aurrera egin da, eta Euskadi Europako herrialde aurreratuenen pare jarri da Justizia Leheneratzailearen arloan. Beste egitasmo batzuen artean, hitzarmen bat sinatu da Euskal Herriko Unibertsitatearekin «Konponbiderako justizia; bitartekaritza ikuspegi berriak» urteroko ikastaro osagarria antolatzeko.

94. Helmuga. Indarkeriaren amaiera ordenatua sustatzea, ETaren armagabetze eta desegitea barne sartuta.*

161

Indarkeriaren amaiera ordenatua.

** Helburu hori 2018an bete zen, eta 2019an, «Eusko Jaurlaritzak ETaren armagabetzean eta desegitean izandako eginkizunaren deskribapena eta balorazioa» txostena argitaratu zen. 2020an ezin itzulizkoa dela berretsi da.*

95. Helmuga. Biktima guztiei zuzendutako egia-, justizia-, erreparazio- eta elkartasun-politikak ezartzea.

162

Egia-, justizia- eta erreparazio- eta elkartasun-politika publikoak ezarri biktima guztiekin.

142. Jarduera. Motibazio politikoko indarkeria-testuinguru batean gertatutako [giza eskubideen urraketen biktimei](#) errekonozimendua eta erreparazioa emateko prozedura garatzea. Beste egitasmo batzuen artean, ekitaldi bat egin zen Gasteizen, Terrorismoaren Biktimen Europako Egunean, «Fue injusto. Gizartea eta biktimak elkarrekin oraina eta etorkizuna eraikiz» lemapean.

96. Helmuga. Laguntza ematea pertsona desagertuen ingurukoe.

160

Desagertutako pertsonen inguruneari lagundu.

143. Jarduera. Familiartekoei laguntzeko eta jarduteko protokolo bat egin zen Desagertutako Biktimei Arreta Emateko Zerbitzuan.

Plangintza-tresnak

Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Plana.

Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoa: Eusko Jaurlaritzaren lanaren bizkarrezurra da, berritzailea izateaz gain, herritarrek parte hartzeko irekita egongo den eta kalitatezko zerbitzu efiziente, eraginkor eta seguruak eskainiko dituen administrazio bat eraikitzeko.

Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra 2020.

Justizia Administrazio Elektronikoa Sustatzeko Plana.

Herritartasunaren, Kultura Aniztasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko Plana: Berdintasun, giza eskubide eta diskriminaziorik ezaren printzipioetan oinarritutako plana.

Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programa: Euskadiko Justizia Leheneratzailearen Zerbitzurako erakundeen arteko koordinazio-protokoloa.

Gogoraren Jarduketa Plana (2017-2020).

Ekimen Legegileak

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako Kidegoei eta Eskalei buruzko Legea: Euskadiko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako langileen egitura eguneratuko du legeak. Legeak lanpostu bakoitzerako eginkizunak eta tituluak berrantolatzea ahalbidetuko du, eta Administrazioaren talde eta azpitalde profesionalen kopurua sinplifikatuko du.

Euskal Sektore Publikoko lege-proiektua: Gaur egungo arau-sakabanaketari erantzuna emango dion erreferentzia juridikoa, erakunde-aniztasun konplexukoa izaki Euskadiko sektore publikoaren antolaketa, testu juridiko askotarikoak dituena.



Garapen Jasangarrirako Mundu Aliantza
inplementatzeko eta biziberritzeko tresnak
sendotzea

Agenda Euskadi
Basque Country



20
30

2020 URTEAN
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

4

JARDUERAK

4

PLANGINTZA-
TRESNAK

4

PLANGINTZA-
TRESNAK

5

EKIMEN
LEGEGILEAK

—

EKIMEN
LEGEGILEAK

—

ADIERAZLEAK

• Giza garapenaren indizea

• Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan parte hartzen duten gazteak

• Eusko Jaurlaritzak garapenera bideratutako laguntza ofizialaren ehunekoa, aurrekontuarekin alderatuta

DATUAK

(2020) 0.937

(Osasun-egoera dela eta, ez da 2020ko edizioa egin)

(2019) 0.41

97. Helmuga. Basque Country nazioartekotze-estrategia globala garatzea, lankidetzaz publiko-pribatuaren bidez.

21

Basque Country nazioartekotzeko estrategia globala garatu, eremu publiko eta pribatuarekin elkarlanean.

144. Jarduera. 2020ko Nazioartekotzeko Esparru Estrategiaren esparruan (Basque Country Estrategia), EAEko erakundeetan 2030 Agenda abian jartzeko bide-orri partekaturako gida praktikoa bat garatu da 17 eragilerekin batera (publiko-pribatuak, gizarte zibilekoak eta unibertsitateak).

98. Helmuga. Garapenerako lankidetzaz-politika sendotzea eta lankidetzarako tresnak estrategia espezifikoaren bidez eguneratzea.

168

Garapenerako lankidetzaz buruzko politika finkatu, eta euskal ankidetzaz-eredua gaurkotu.

169

Ebaluazio-kultura sustatu, lankidetzaz dagokionez.

145. Jarduera. Lankidetzaz-politika finkatu da, Garapenerako Lankidetzazaren Euskal Agentziaren ekimen eta deialdien bidez, zenbateko honekin: 37.963.825,12 euro. Horietatik, 4,2 milioi euro ekintza humanitarioko proiektuetara bideratu dira; 32 milioi euro gizartea eraldatzeko lankidetzaz- eta hezkuntza-proiektuetara; 711.283,00 euro laguntza izendunetara; 915.000 euro zuzeneko dirulaguntzetara; eta 137.542,12 euro Peruko osasun-lankidetzazko ekintza batera. Bestalde, EAEko lankidetzaz-politika finkatu da lankidetzaz deszentralizatuari buruzko txostenak egiteari (lankidetzazaren erronkak COVID-19aren testuinguruan) eta lankidetzazaren sektorerako topaketak eta prestakuntzak egiteari esker, eta garapenerako lankidetzazaren Ignacio Ellacuria saria arautzen duen dekretu berria eguneratu da.

99. Helmuga. Garapenerako lankidetzaz-politika publikoaren koherentzia eta instituzioen arteko koordinazioa bultzatzea.

171

Lankidetzaz-politika koherenteagoa, koordinatuagoa eta partaidetzazkoagoa izan.

146. Jarduera. Garapenerako Lankidetzazarako Euskal Kontseiluaren garapen-politiken koherentzia-taldearen prestakuntza-prozesuari ekin zaio, eta balioen eta hezkuntza-politiken inguruko prestakuntzaren arloan garatzeko politiken koherentzia-txostena abian jarri da.

100. Helmuga. Lankidetzaz-politika publikoari lotutako ekimen estrategikoak abiatzeko aliantzen garapena bultzatzea estatuan, europan eta nazioartean.

170

Garapenerako Lankidetzazaren Euskal Agentziaren gaitasunak indartzea Garapenerako lankidetzazaren politikaren diseinu eta kudeaketarako.

147. Jarduera. Garapenerako lankidetzaz deszentralizatuaren jardunaldiak eta «Krisialdiak lankidetzaz gainditzen dira: lankidetzaz deszentralizatuak COVID-19 bitartean eta ondoren» mintegi birtuala, PLATFORMA Europako erakundearekin lankidetzaz.

Plangintza-tresnak

Nazioartekotzeko Euskal Estrategia, Euskadi-Basque Country 2020: Euskadiren nazioartekotze-premiei erantzuteko eta gizarte global eta irekiagoa izateko helburua lortzeko tresna.

Garapenerako Lankidetzarako Plan Zuzentzailea 2018-2021: Nazioarteko testuinguruko erronkei erantzuteko, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren ahalmen eraldatzailea zabaltzeko, eta lankidetzaren ereduaren ikuspegi berriak sustatzeko, 2030 Agendarekin bat etorrira.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Ekintza Humanitarioko Estrategia 2018-2023.

Euskadi Basque Country 2030 Agenda: 2030 Agendaren ezaugarri bereizgarriak tokiko mailan egokitze eta lurralde-dimentsioa sustatzeko konpromisoa. Ekintza-planak islatzen du gobernu-programak eta hori garatzen duten politika sektorialek zenbateraino bat egiten duten garapen jasangarriaren 17 helburuei lotutako helburu eta jomugekin, bai eta azken horiei zer nolako ekarpena egiten dieten ere.

Politiken koherentzia-esparrua: Gobernu-ekintzarako erreferentzia, bai barneko garapen-estrategiei dagokienez, bai kanpo-ekintzari edo bi gaien arteko erlazioari dagokienez.

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

